

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruz

ZIOEN AZALPENA

— I —

Dirulaguntzek Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren finantza jardueraren zati handi bat osatzen dute, eta pertsona publiko zein pribatuen eskari sozial eta kolektiboek erantzutea dute helburu.

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, aurrekontuaren ingurukoez gainera, Arabako Foru Ogasunarekin zerikusia duten beste gai batzuk jasotzen zituen. Haietako batek izena ematen zion foru arauko IV. tituluari: "Dirulaguntzen araubide orokorra".

Otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta transferentzia, onartu zenean, indarrik gabe geratu zen aurreko arau multzoa, hots, 53/1992 Foru Arauko IV. tituluak, eta dirulaguntza eta transferentzien gaineko arau multzo berria ezarri zen.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, argitaratu izanaren ondorioz (2003-11-18ko BOE, 276. zk.), arau multzo berriaren beharra dago, eta bertan derrigorrez jaso behar dira lege horretan oinarritzat ezarritako manuak; oinarritzaileak ez diren manu batzuk ere jaso dira, testuari koherentzia emateko.

Foru arau honetan dirulaguntzetarako hautatu den araubideak gizartearen beharrezkoak asetzea du xede, eta, horrekin batera, beraren bitartez funts publikoen kudeaketa erraztu nahi zaio foru sektore publiko osoari, betiere interes orokorra eta dirulaguntzetarako baliabideen kudeaketa eraginkorra eta efizientea bermatuz.

— II —

Foru arauaren testuak atariko titulu bat eta beste lau titulu ditu, hirurogeita hamar artikuluz osatuak; bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

Atariko tituluak bi kapitulu ditu, eta gaiari buruzko xedapen orokorrak biltzen ditu. I. kapituluaren dirulaguntza zer den zehazten da, esanez dirulaguntza dela pertsona publiko edo pribatuei dirua ematea haiengandik zuzeneko kontraprestaziorik jaso gabe, baina proiekturen bat burutu, jardueraren bat egin edo jokabide jakin bat hartu beharri lotuta, eta, betiere, jarduera publiko, interes sozial edo xede publikoren bat sustatzea helburutzat hartuta.

Dirulaguntza kontzeptuaren mugaketa horretaz gainera, badira beste zenbait kasu, funtsean kontzeptuaren ezaugarrietako batzuk eduki arren foru arauaren aplikazio eremutik kanpo uzten direnak. Arabako Foru Aldundiari, foru erakunde autonomoek eta foru partzuergoek aplikatuko zaie foru araua. Foru sektore publikoak izan eta zuzenbide pribatuaren bidez arautzen diren

entitateek kontraprestaziorik gabe egiten dituzten diru emateei kudeaketaren eta informatu beharraren printzipioak aplikatuko zaizkie.

Dirulaguntzei buruzko xedapen orokorrak jaso dira atariko tituluko II. kapituluan, eta dirulaguntza emateko jardueraren oinarriko printzipioak definitu dira, besteak beste honako hauek: publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, bereizkeriarik eza, eraginkortasuna eta efizientzia. Halaber, II. kapituluan arautzen dira dirulaguntzak emateko betekizunak, dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak, pertsona onuradunen definizioa, onuradun izateko betekizunak eta onuradunen betebeharrak.

Jarraian, organo emaileen eta entitate laguntzaileen artean egin beharreko lankidetzaren hitzarmenak arautzen dira. Hitzarmen horiek beti egin behar dira horrelako entitateek parte hartzen badute dirulaguntzen kudeaketan eta banaketan. Hitzarmenen betekizunak eta entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak eta eginbeharrak zehazten dira.

Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen gutxieneko edukia sakondu egiten da, dirulaguntza bakoitzaren araubidea argitu eta egokiro osatzeko eta geroko egiaztapen eta kontrol jarduketak errazteko.

Kapitulu horretan beste kontu batzuk ere jaso dira: ematen diren dirulaguntzen publizitatea eta horren salbuespenak, diruz lagundutako jardueren finantzaketa eta bermeen araubidea.

— III —

Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak arautzen dituzten xedapenak I. tituluan bildu dira, eta eduki hori bost kapitulutan banatu da.

I. kapituluan ezartzen da dirulaguntzak emateko araubide orokorra lehia izango dela, lehiak ahalbidetzen duelako foru arauan dirulaguntzak emateko ezarritako printzipioak gauzatzea; eta dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek egin behar duela, instrukzio organo baten bitartez (kide anitzeko organoaren osaera oinarri arautzaileetan zehaztuko da).

Kapitulu horretan, halaber, dirulaguntza zuzenean eman daitekeen kasuak aurreikusten dira.

Dirulaguntza lehia araubidean emateko prozedura II. kapituluan arautzen da. Prozedura hori ofizioz hasiko da beti, eta deialdi bidez gauzatuko da. Eskabideekin batera, deialdian zehazten diren agiriak eta informazioak aurkeztu beharko dira, baina dokumentazio horren ordez eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko aukera egongo da, araudian horrela aurreikusiz gero.

Prozeduraren instrukzioan eskaerak aurretiaz ebaluatzeko fase bat ezarri ahal izango da, administrazio izaera hutseko zenbait baldintza edo betekizun betetzen direla egiaztatu ahal izateko. Horrela, ebaluazio fasea, konplexuagoa baita, baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaileei bakarrik egin ahal izango zaie.

Azkenik, aurkeztutako eskabideak birformulatu ahal izango dira, proposatzen den dirulaguntzaren zenbatekoa eskabidean ageri dena baino txikiagoa izan, eta dirulaguntzaren xedea eskatzaileak egin beharreko hainbat jarduera finantzatzea denean.

Dirulaguntza zuzenean emateko prozedura arautzen da III. kapituluan. Foru arauan ezarritako kasuetan bakarrik aplikatu ahal izango da prozedura hori, eta ezaugarritzat izango du publikotasunaren eta lehiaren printzipioak bete beharrik ez izatea.

Pertsona onuradunak eta, halakorik bada, entitate laguntzaileak dirulaguntza nola kudeatu eta justifikatu behar duten zehazten da IV. kapituluan. Berariaz azaltzen da pertsona onuradunak hirugarrenekin hitzartu ("azpikontratatu") ahal izango duela diruz lagundutako jardueraren zati baten gauzatzea, betiere horrela aurreikusten bada oinarri arautzaileetan, eta foru arauak berak ezartzen duen muga gainditu gabe, oinarri arautzaileetan beste mugarik zehaztu ezean.

Dirulaguntzak justifikatzeko moduei dagokienez, gastuaren justifikazio kontua, modulukako justifikazioa eta kontabilitateko egoera orrien bidezko justifikazioa aurreikusten dira.

Kapitulu horretan arautzen dira, halaber, diruz lagungarritzat jo daitezkeen gastuak, bai eta gastuen gehieneko zenbatekoa ere –hortik gora ezingo dira diruz lagundu–; eta balio hori egiaztatzeko bitartekoak ezartzen dira.

V. kapituluaren aurrekontu kudeaketako prozedura arautzen da. Arau orokor gisa ezartzen da dirulaguntza ordaindu aurretik pertsona onuradunak frogatu egin beharko duela dirulaguntzaren xedea bete izana, eta ez dela dirulaguntzarik ordainduko onuraduna zordun den bitartean, dirulaguntza itzularazten dion ebazpenen baten ondorioz, edota bere zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean.

Pertsona onuradunei dirulaguntzaren xedea betetzea errazteko, aurrerakin gisa konturako emateak egiteko aukera izango da, foru arauan ezarritako muga batzuei lotuta.

Aurreikusten da, halaber, organo emaileak, kautelazko neurri gisa, fakturak, agiri baliokideak edo ordezekoak atxikitzea erabaki ahal izango duela, egiaztapenaren edo finantza kontrolaren arloko eginkizunetan diharduela.

– IV –

II. tituluak hiru kapitulu ditu, eta dirulaguntzen itzulketaz ari da.

I. kapituluak itzulketen araubidea zehazten du. Bi kasu bereizten ditu: ematearen baliogabetasuna, emate egintzaren akatsen ondorioz; eta dirulaguntzen itzulketa, pertsona onuradunek euren gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz. Itzulketaren arrazoiak zehatz-mehatz arautzen dira, eta arrazoi horiek lotura berezia dute pertsona onuradunen eta entitate laguntzaileen betebeharrak ez betetzearekin.

Funtsean, emandako dirulaguntza osoa itzuli behar da, baina gerta liteke dirulaguntzaren zati bat baino ez itzultzea, betiere pertsona onuradunak betetakoa modu nabarmenean hurbiltzen bazaio betetze osoari. Beste alderdi batzuk ere jaso dira: itzuli beharreko diru kopuruak zuzenbide publikoko diru sarreratzat jotzea, Administrazioak itzulketa aitortzeko edo likidatzeko duen eskubidearen preskripzioa –lau urtekoa–, eta itzuli behar duten pertsonak.

II. kapituluak itzultzeko prozeduraz eta itzulketa eskatzeko eskumenaz ari da; betiere organo emailea izango da eskuduna. Foru arauak dio bi modutara has daitekeela itzulketa prozedura: ofizioz, organo eskudunaren ebazpenaren bidez; eta dirulaguntzen finantza kontrolerako jarduketan ondorioz.

III. kapituluaren xedea da Arabako Lurralde Historikoak egiten duten jarduera etetearen bidez edo nabarmen gutxitzearen bidez –aldi berean kanpoan garatuz- enpresa-deslokalizaziora jotzen duten enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak itzultzeari buruzkoa da.

– V –

III. tituluak dirulaguntzen finantza kontrolari buruzkoa da: horren xedea, eskumena eta kontrol lanaren edukiak ezartzen ditu, kontrola egiteko prozedura zehazten du, eta pertsona onuradunei, entitate laguntzaileei eta dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten hirugarrenei laguntza betebeharrak ezartzen dizkie.

– VI –

IV. tituluak jaso da dirulaguntzen arloko arau hausteen eta zehapenen araubidea. Bi kapitulu osatzen dute titulu hori. I. kapituluaren arau hausteak definitzen dira eta honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak. Arau hausteen erantzuleak, egitez edo ez egitez, nortzuk izan daitezkeen ere zehazten da, eta, bestalde, erantzukizunetik salbuetsi daitezkeen kasuak azaltzen dira.

II. kapituluaren berriz, zehapen motak eta zehapenak zehazteko mailakatze irizpideak ezartzen dira, eta arau hauste arinei, larriei eta oso larriei zer zehapen dagozkien azaltzen da. Arau hausteen eta zehapenen preskripzio epeak, zehapen prozedurari buruzko arauak, zehapenak ezartzeko eskumena eta arau hausteen ondoriozko erantzukizuna azkentzeko arrazoiak ere ezartzen dira.

Zehapenak diruzkoak eta ez diruzkoak izan ahalko dira. Lehenengoak isun finko edo proportzionalak izan ahalko dira; isun proportzionala aplikatuko zaio bidegabeki lortu edo erabili den edota justifikatu ez den diru kopuruari.

Azkenik, diruzko zehapenei dagokienez, erantzukizun subsidiarioa eta solidarioa dagoen zerbait kasu zehazten dira.

Azkenik, foru arauak baditu xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak, xedapen indargabetzaileak eta azken xedapenak; besteak beste, goian azaldutako aurreikuspenen osagarriak dira hainbat alderditan (foru araua indarrean jarri baino lehen hasitako prozeduren araubide iragankorra, foru araua indarrean jartzea, edo foru araua erregelamendu bidez garatzea).

Foru araua egiterakoan kontuan hartu dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioak, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Arabako bigarren Foru Planaren (Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 8ko 1008/2005 Erabakia, 2005-11-25eko ALHAO, 133. zk.) oinarri izan zirenak, bai eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Foru arauaren aplikazio eremua

1. artikulua. Xedea

Foru arau honen xedea da 2. artikuluan aipatzen diren entitateek ematen dituzten dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa

1. Foru arau hau Arabako Foru Aldundiari, foru erakunde autonomoei eta foru partzuergoei aplikatuko zaie.

Foru Aldundiarekiko lotura edo mendekotasuna eta berezko nortasun juridikoa duten zuzenbide publikoko entitateek eta erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak ere foru arau honi lotu behar zaizkio, baldin eta administrazio ahalak erabiltzearen ondorioz ematen badira.

2. Zuzenbide pribatuak arautzen dituen foru sektore publikoko entitateek kontraprestaziorik gabe egiten dituzten diru emateei aplikagarri izango zaizkie arau honetan jasotako kudeaketa printzipioak eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 20. artikuluan aipatzen duen informazio betebeharra. Edonola ere, doako ekarpenek zerikusi zuzena izan beharko dute entitatearen sorrerako arauan edo estatutuetan jasotako jardueraren xedearekin.

3. Arabako Foru Aldundiko organoek edo harekiko lotura edo menpekotasuna duten zuzenbide publikoko entitateek beste administrazio batzuekin batera dirulaguntzaren bat izapidetzen dutenean, halaber, foru arau hau aplikatuko da, organo horiek kudeatzen dituzten prozedurako faseei dagokienez.

3. artikulua. Dirulaguntza zer den

1. Hurrengo artikuluan aipatutako subjektuetariko edozeinek pertsona pribatu zein publikoen alde dirua baliatzea hartuko da dirulaguntzat, foru arau honi dagokionez, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badira:

a) Dirulaguntza pertsona onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.

b) Diru emate hori helburu jakin bat betetzeak, proiektu bat burutzeak, jarduera bat egiteak edo jokabide jakin bat hartzeak baldintzatu beharko du, horiek gauzatuta edo garatzeke egon, edo beste egoera batekin batera gertatzen diren kontuan hartu gabe. Ezarritako obligazio materialak eta formalak bete beharko ditu pertsona onuradunak.

c) Diruz lagundutako proiektu, ekintza, jokabide edo egoerak helburu izan behar du jarduera publiko edo gizarte interesen bat sustatzea nahiz xede publikoren bat bultzatzea.

2. Honako hauek foru arau honen aplikazio eremutik kanpo daude:

a) Administrazio publikoek elkarri diru ekarpenak egitea, administrazio hartzaillearen jarduera globalki finantzatzeko; eta administrazio bateko agenteek, euren aurrekontuak administrazio horren barruan dituztenek, elkarri diru ekarpenak egitea, euren jarduera globalki finantzatzeko edota esleitutako eginkizunen esparruan garatu beharreko jarduketa zehatzak egiteko, betiere ekarpen horiek deialdi publiko baten emaitza ez badira.

b) Onuradunak aurretik eskatu gabe ematen diren sariak.

c) Martxoaren 27ko 1/1987 Legean, lurralde historikoetako batzar nagusietarako hauteskundeenean, aurreikusten diren dirulaguntzak.

d) Beste administrazio publiko batzuekiko hitzarmenetan ezartzen diren kontraprestazioak; administrazio publikoek elkarrekin plan eta programak egiteko sinatzen dituzten hitzarmen eta itunen ondoriozko prestazioak; eta administrazio publiko izenpetzaileei betearazpenerako eskumen partekatuak esleitzen dizkieten hitzarmenen ondoriozkoak.

e) Kotizazio gabeko prestazioak.

f) Apirilaren 7ko 13/1982 Legeak, ezinduak gizarteratzekoak, ezinduentzat ezarritako prestazioak.

g) Gizarte Ongizaterako Funtseko pentsioak, maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan halako prestazioak arautzen dituenak, ezarritakoaren ondorio badira.

h) Mendekotasuna duten pertsonentzako prestazioak, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasuna duten pertsonen laguntzekoak, ezarritakoaren ondorio badira.

i) Foru arauetan ezartzen diren zerga onurak.

j) Klase pasiboen sistemaren ondorio diren prestazioak.

3. Arabako Foru Aldundiak, haren foru erakunde autonomoek eta foru partzuergoek ematen dituzten abalek eta bestelako bermeek euren araudi berariazkoa izango dute.

Aurrekoa gorabehera, 2.1 artikuluan aipatutako entitateek sustapen tresna gisa bermeak erabiltzen badituzte, kontuan hartu beharko dituzte foru arau honetako 7. artikuluan horrelako bermeak emateari buruz jasotako printzipioak.

4. artikulua. Dirulaguntzen araubide juridikoa

1. Aplikatu behar diren oinarritzko xedapenak albora utzi gabe, dirulaguntzak, 3. artikuluan ezarritako moduan, foru arau honek, berau garatzeko xedapenek eta administrazio zuzenbideko gainerako arauak arautuko dituzte, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

2. Partzuergoek, mankomunitateek eta hainbat administrazio publikok edo horien menpeko hainbat erakunde edo entitatek batera sortutakoak diren bestelako pertsonifikazio publikoek ematen dituzten dirulaguntzak sorrerako tresna juridikoan edo hitzarmenean bertan jarritakoaren arabera arautuko dira. Betiere foru arau honetako xedapenei lotu beharko zaizkie.

5. artikulua. Europar Batasuneko funtsen kargura finantzatzaren diren dirulaguntzen araubide juridikoa

1. Europar Batasuneko funtsen kargura finantzatzaren diren dirulaguntzak kasu bakoitzean aplikatu beharreko Europar Batasuneko arauen bidez eta horien garapenerako edo transposizioarako arauen bidez arautuko dira.

2. Foru arau honetan dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko ezarritako prozedurak osagarriak izango dira, Europar Batasuneko funtsen kargura finantzatzaren diren dirulaguntzei zuzenean aplikatu beharreko arauen osagarriak, alegia.

II. KAPITULUA**Dirulaguntza publikoei buruzko xedapen orokorrak****6. artikulua. Dirulaguntzen plangintza eta ebaluazioa**

1. Foru arau honetako 2.1 artikuluan aipatutako entitateek dirulaguntzak emateko jarduera alde aurretik planifikatu beharko da. Plangintza horrek barruan hartuko ditu helburuak, lortu nahi diren eraginak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa iturriak, eta plangintzaren helburuekin zerikusia duten ekintzak eta adierazleak, haren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetuko dituztenak. Betiere aurrekontu egonkortasunaren arloko helburuak betetzea lehenetsiko da.

Diputatuen Kontseiluaren eskumena izango da plangintza hori onartzea.

2. Kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoa amaitutakoan, foru arau honen 2.1 artikuluan aipatutako entitateek ebaluatu egin beharko dituzte gauzatutako dirulaguntza programak. Horrela, lortu diren emaitzak, horien erabilgarritasuna eta eragin sozial eta ekonomikoa eta dirulaguntza programak mantentzearen edo kentzearen egokitasuna aztertu ahal izango dira.

7. artikulua. Printzipio orokorrak

1. Foru arau honek arautzen dituen dirulaguntzen kudeaketa honako printzipio hauei lotuko zaie:

- a) Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- b) Administrazio emaileak ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.
- c) Eraginkortasuna baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

2. Dirulaguntzek, bidezkoa denean, sexuen arteko aukera berdintasuna sustatzeko bitartekoak eskaini beharko dituzte, alegia, desberdintasunak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko bitartekoak.

3. Dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileek kontuan hartuko dute euskararen erabileraren faktorea, Foru Aldundiak euskararen erabilera normalizatzeko onartutako politikaren esparruan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeari, euskararen erabilera normalizatzekoari, jarraituz.

8. artikulua. Dirulaguntzak emateko betekizunak

1. Dirulaguntzak eman aurretik, nola eman arautzen duten oinarriak onartu beharko dira, foru arau honetan ezarritako moduan.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru arau honetako 26. artikuluan araututako prozedurei.

2. Baldin eta, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratutako 107. eta 109. bitarteko artikuluen arabera, dirulaguntzaren bat edo dirulaguntza programaren bat ezarri, eman edo aldatzeko proiektua jakinarazi beharra badago, organo emaileak Europar Batasuneko Batzordeari jakinarazi beharko dio, bateragarritasuna deklara dezan. Horrelakoetan, ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta merkatu erkidearekin bateragarria dela deklaratu arte.

3. Dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratuko dira.

4. Gainera, dirulaguntza emateko honako betekizun hauek bete behar dira:

- a) Administrazio organo emaileak eskumena edukitzea.
- b) Kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematearen ondoriozko betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.
- c) Dirulaguntza emateko prozedura arau aplikagarri jarraituz izapidetzea.
- d) Eduki ekonomikoko administrazio egintzak fiskalizatzea, aplikatu beharreko araudian ezarritako moduan.
- e) Organo eskudunak gastua onartzea.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak

1. Arabako Foru Aldundiaren esparruan, kasuan kasuko gastua baimendu eta xedatzeko ahalmena duen foru organoak emango du dirulaguntza, bere eskumeneko eremuan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, edo horren ordezkari araudiak xedatzen duenari jarraituz.

2. Bigarren artikuluko 1. idatz zatian aipatutako gainerako entitateen esparruan, kasuan kasuko entitatearen Administrazio Kontseiluak zehazten dituen organoek emango dituzte dirulaguntzak.

10. artikulua. Pertsona onuradunak

1. Dirulaguntzaren onuradun izango da dirulaguntzak oinarri duen jarduera egingo duen edo ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona.

2. Onuraduna pertsona juridikoa denean, pertsona onuraduntzat hartuko dira, halaber, pertsona juridikoaren bazkideak, baldin eta dirulaguntza emateko arrazoi diren jarduerak pertsona juridikoaren izenean eta beraren kontura osorik edo zati batez egiteko konpromisoa hartzen badute, eta oinarri arautzaileetan aukera hori aurreikusita badago.

3. Oinarri arautzaileetan berariaz hala ezarrita dagoenean, onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak, ondasun erkidegoak edota beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektu, jarduera edo jokabideak burutzeko gauza badira edo dirulaguntza emateko arrazoi den egoeran badaude.

Nortasunik gabeko pertsona fisikoen edo juridikoen, publikoen edo pribatuen elkarteak bada, eskaeran, elkarteko kide bakoitzak hartutako gauzatze konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa agertu beharko dira, eta kide horiek ere pertsona onuradunak izango dira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, elkarteari pertsona onuraduna den neurrian dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Foru arau honetako 38. eta 66. artikuluetan ezartzen den preskripzioaldia amaitu arte ezin izango da desegin elkartea.

11. artikulua. Entitate laguntzaileak

1. Entitate laguntzailea honako hau izango da: dirulaguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako organo emailearen izenean eta haren kontura jardunez, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietena, oinarri arautzaileetan horrela ezartzen denean, edo dirulaguntza kudeatzen laguntzen duena, baina jasotako funtsak alde aurretik eman eta banatu gabe. Funts horiek inola ere ez dira hartuko entitate laguntzaileen ondareko osagaitzat.

Entitate laguntzaile izango dira, halaber, Europar Batasuneko araudiari jarraituz pertsona onuradun izendatu, eta aurreko idatz zatian azaldutako eginkizunak soil-soilik ezartzen zaizkien pertsonak.

2. Bigarren artikuluko 1. idatz zatian aipatutako entitateen laguntzaile gisa jardun ahal izango dute honako hauek: gainerako administrazio publikoek; administrazio publikoak partaide bakarrak edo gehiengodunak dituzten merkataritzako sozietateek; zuzenbideko erakundeek; eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarteak. Halaber, entitate laguntzaile izan ahalko dira gainerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak, ezartzen diren kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen badituzte.

Foru Aldundia eta foru sektore publikoko gainerako entitateak ere gainerako administrazio publikoen laguntzaile gisa aritu ahal izango dira.

12. artikulua. Pertsona onuraduna edo entitate laguntzailea izateko betekizunak

1. Pertsona onuradun edo entitate laguntzaile izan ahalko dira dirulaguntza emateko oinarri den egoeran dauden pertsonak edo entitateak, edota oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako inguruabarrak biltzen dituztenak.

2. Honako egoera hauetatik edozeinetan dauden pertsona edo entitateak ezin dira izan foru arau honetan araututako dirulaguntzen pertsona onuradun edo entitate laguntzaile, dirulaguntzaren izaera dela eta dirulaguntzaren araudiak salbuespena ezarri ezik:

a) Epai irmoan ezarritako kondena baten ondorioz, dirulaguntza edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izana.

b) Konkurtsoaren deklarazioa eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabeziaren deklarazioa jaso izana, konkurtsoaren deklarazioa jaso izana, esku hartze judizialaren menpean egotea edo desgaituta egotea Konkurtso Legearen arabera, eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutza aldia amaitu gabe egotea.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasun kasuren batean egotea, gai horiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

e) Indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez edukitzea.

f) Zerga egoitza erregelamendu bidez zerga paradisutzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzen itzulketa dela eta egin beharreko ordainketak egunean ez edukitzea, erregelamenduz ezartzen den eran.

h) Genero edo sexu orientazioarengatik bereizkeria egiteagatik zehapen administratiboa edo penala jaso izana (kasuan kasuko zehapenean ezarritako epea amaitu arte).

i) Ebazpen irmoz ezarritako zehapen gisa, dirulaguntzak lortzeko aukera galdu izana, kasuan kasuko araudiari jarraituz.

j) Dirulaguntzak jasotzeko debekuek beste enpresa hauei ere eragingo diete: euren zuzendariak edo bestelako inguruabarrak ikusirik, debekua duten beste enpresa batzuen eraldaketa, bat egite edo oinordetzaren ondorioz haietatik eratorritzat jo daitezkeen enpresei.

Foru arau honetako 10. artikuluko 3. idatz zatiko bigarren lerroaldean aurreikusitako elkarteak ezingo dira onuradun izan, baldin eta haien kideren batek goian azaltzen diren debekuetariko edozein badauka.

3. Edonola ere, ezingo dira foru arau honetan araututako dirulaguntzen pertsona onuradun izan, ezta entitate laguntzaile ere, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak, elkartzeko eskubidea arautzen duenak, 4. artikuluko 5. eta 6. idatz zatietan ezarritako debeku egoeretan dauden elkarteak.

Eta 1/2002 Lege Organikoak 30.4 artikuluan xedatzen duenaren arabera, legez kontra ari diren susmoa izan eta izena emateko hasitako prozedura administratiboa etenda duten elkarteak ere ezingo dira onuradun izan, ezta erakunde laguntzaile ere, dagokien erregistroan inskribatzea posiblea dela dioen ebazpen judizial irmoa eman arte.

4. Artikulu honetako 2. idatz zatiko b), d), e), f) eta g) letretan eta 3. idatz zatian dauden debekuak modu automatikoan hartuko dira aintzat, eta kasu bakoitzean eurak eragiten dituzten inguruabarrak amaitu arte iraungo dute.

5. Artikulu honetako 2. idatz zatiko a), h) eta i) letretako debekuak modu automatikoan hartuko dira aintzat. Debekuaren iraupena epai edo ebazpen irmoan zehaztutakoa izango da. Horrelakorik ezean, zehazten den prozeduraren arabera finkatuko da iraupena, baina gehienez bost urtekoa izango da, debekua epai irmo baten ondorio ez bada.

6. Artikulu honetako 2. idatz zatiko c) letretan jasotako debekua aintzat hartu eta bere iraupena zehazteko, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, 50. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, 49.2.a) artikuluekin loturik.

7. Pertsona edo entitateek frogatu egin beharko dute ez dutela debekurik pertsona onuradun edo entitate laguntzaile izateko (debekuak artikulu honetako 2. eta 3. idatz zatietan daude). Horretarako, lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu igorpenak baliatu ahal izango dituzte, kasuan kasuko araudian ezarritakoarekin bat, edo ziurtagiri administratiboa, kasuan kasukoa; eta agintaritza eskudunak ezin badu horrelako agiririk eman, ordezeko gisa erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, agintari administratibo edo notario publiko baten aurrean egiletsia.

13. artikulua. Pertsona onuradunen betebeharrak

1. Hauek dira pertsona onuradunaren betebeharrak:

a) Dirulaguntza emateko oinarri izan den helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean edo, hala behar denean, entitate laguntzailearen aurrean frogatzea dirulaguntza jaso ahal izateko betekizunak eta baldintzak bete direla, jarduera egin dela eta dirulaguntzaren helburua lortu dela.

c) Dirulaguntza eman duen organoak edo, hala behar denean, entitate laguntzaileak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta kontrol organo eskudunek finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera eta baliabide guztien berri jakinaraztea dirulaguntza ematen duen organoari edo, hala behar denean, entitate laguntzaileari.

Horien guztien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta, nolana ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

e) Dirulaguntza emateko ebazpen proposamena eman aurretik, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzea.

f) Kontabilitateko liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiri guztiak edukitzea, behar bezala ikuskatuta, merkataritzako eta arloko legeriaren arabera kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko baldintzekin; eta dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako kontabilitateko egoera orri eta berariazko erregistro guztiak ere edukitzea, egiaztapenerako eta kontrolerako ahalmenak behar bezala erabili ahal izango direla bermatzeko.

g) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzeko agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketetarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.

h) Foru arau honetako 17. artikuluko 3. idatz zatian azaltzen diren zabalkunde neurriak hartzea.

i) Foru arau honetako 35. artikuluan azaltzen diren kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

j) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatzen bada, erakunde emaileari edo, hala behar denean, entitate laguntzaileari aldaketaren berri ematea.

2. Otsailaren 5eko 1/1988 Legeak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak, 2. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen duen kontrolerako bitartekoa artikuluko 1. idatz zatiko b) letran araututako betebeharrak izango da, hau da, dirulaguntza eman duen organoari edo, hala behar denean, entitate laguntzaileari justifikazioa aurkeztu beharra.

14. artikulua. Entitate laguntzaileen betebeharrak

1. Hauek dira entitate laguntzaileen betebeharrak:

a) Jasotako funtsak pertsona onuradunei ematea, dirulaguntza arautzen duten oinarrietan eta erakunde emailearekin izenpetutako hitzarmenean ezarritako irizpideei jarraituz.

b) Dirulaguntzak emateko baldintzak edo betekizunak egoki betetzen direla egiaztatzea, hala behar denean; eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntzaz gozatzeko egin beharreko jarduera egin dela eta bete beharreko xedea bete dela egiaztatzea.

c) Jasotako funtsen erabilera justifikatzea dirulaguntza eman duen organoaren aurrean, eta, hala behar denean, pertsona onuradunek aurkeztutako justifikazioa ematea.

d) Funts horien kudeaketari buruz organo emaileak egiten dituen egiaztapen jarduketak onartzea, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta kontrol organo eskudunek finantza kontrolerako eta egiaztapenerako ezartzen dituzten gainerakoak ere. Jarduketa horietan eskatzen zaizkien informazio guztiak eman beharko dituzte.

2. Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko gainerako erakundeek entitate laguntzaile gisa jarduten dutenean, haien menpeko organo egokiek egingo dituzte aurreko idatz zatiko d) letran aipatutako egiaztapen eta kontrol jarduketak, ezertan eragotzi gabe Europar Batasuneko kontrol organoen eskumenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak.

15. artikulua. Lankidetzaren hitzarmena

1. Lankidetzaren hitzarmena egingo da dirulaguntza ematen duen administrazio organoaren eta entitate laguntzailearen artean, eta bertan arautuko dira azken horrek bere gain hartutako betebeharrak eta baldintzak.

2. Lankidetzaren hitzarmenak gehienez lau urteko indarraldia izango du, baina bertan aurreikusi ahal izango da indarraldia aldatu eta luzatu ahal izatea, aldeak ados jarriz gero, indarraldia amaitu aurretik. Luzapen guztiek batera ezingo dute hitzarmenaren hasierako indarraldia gainditu, eta lankidetzaren hitzarmenak, orotara, gehienez sei urte iraungo du.

Dirulaguntzaren xedea maileguak ordaintzen laguntzea denean, hitzarmenaren indarraldia maileguak guztiz kitatu arte luzatu ahal izango da.

3. Lankidetzaren hitzarmenean honako hauek jaso beharko dira gutxienez:

a) Lankidetzaren xedeari eta entitate laguntzailearen definizioa.

b) Entitate laguntzaileak kudeatuko dituen dirulaguntzen araudi bereziaren identifikazioa.

c) Lankidetzaren hitzarmenaren iraunaldia.

d) Entitate laguntzailearentzat ezarritako ordain ekonomikoa, halakorik bada.

4. Dirulaguntzak egoki kudeatzeko beharrezkotzat jotzen bada, hitzarmenean atal hauek jaso ahal izango dira:

a) Dirulaguntza ematen duen organoaren alde eratu behar den bermea, berme hori eratzeko bideak eta bermea kitatzeko prozedura.

b) Dirulaguntzak kudeatzeko prozeduraren fase bakoitzean entitate laguntzaileak bete eta betearazi beharreko baldintzak.

c) Entitate laguntzaileak funts publikoak banatzen lagundu behar badu, funtsak berari emateko epea, eta funtsak jasotzen dituenetik onuradunei ematen dizkien arte gordailututa edukitzeko baldintzak.

d) Entitate laguntzaileak funts publikoak banatzen lagundu behar badu, administrazio organo emaileak emandako dirulaguntzak pertsona onuradunei helarazteko baldintzak.

e) Onuradunek nola justifikatu behar duten dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen dituztela, eta justifikazio hori egiaztatzeke betekizunak.

f) Dirulaguntzen justifikazioa, onuradunek emandakoa, aurkezteko epea eta modua; eta, entitate laguntzaileak funts publikoak banatzen laguntzen badu, funtsak onuradunei eman izana frogatzeko epea eta modua.

g) Entitate laguntzaileak zeintzuk kontabilitate erregistro eta liburu eraman behar dituen dirulaguntza egoki justifikatu ahal izateko eta ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

h) Funtsak itzuli beharra, dirulaguntza emateko ezarritako betekizun eta eginbeharrak betetzen ez badira, eta, nolana ere, foru arau honetako 36. artikuluan arautzen diren kasuetan.

i) Entitate laguntzaileak foru arau honetako 14. artikuluko d) letran ezartzen diren egiaztapen eta kontrol jarduketak jasan beharra.

5. Beste administrazio publiko batzuk, haiei lotutako erakunde publikoak edo haien mende-koak foru sektore publikoko entitate laguntzaile gisa aritzen direnean, hitzarmenak egingo dira haiekin. Hitzarmenetan zehaztuko dira funtsak banatu eta emateko betekizunak, justifikaziorako irizpideak eta kontuak emateko irizpideak.

Era berean jokatu da foru sektore publikoko edozein erakundek entitate laguntzaile gisa jarduten duenean beste administrazio publiko batzuek, haiei lotutako erakunde publikoek edo haien mende-koek ematen dituzten dirulaguntzei dagokienez.

6. Entitate laguntzaileak zuzenbide pribatuko pertsonak direnean, aldez aurretik aukeratu-ko dira, publikotasunaren, lehiaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioen arabera prozedura baten bitartez, eta hitzarmen bidez formalizatuko da lankidetzaren, salbu eta, lankidetzaren xedeagatik, bete-betean aplikagarria denean urriaren 30eko 30/2007 Legea, sektore publikoko kontratuena.

Kontratuak artikuluko 3. idatz zatian azaltzen den gutxieneko edukia izango du, bai eta administrazio kontratuei buruzko araudian agindutako edukia ere. Kontratuak berariaz adierazi behar du kontratistak foru arau honetan entitate laguntzaileei ezartzen zaizkien gainerako betebeharrak izango dituela.

16. artikulua. Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak

1. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen esparruan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak Diputatuen Kontseiluak onartuko ditu.

2. Dirulaguntzak emateko oinarriari buruzko arauak honako hauek zehaztuko ditu, gutxienez:

a) Dirulaguntzaren xedearen definizioa.

b) Pertsona onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharko dituzten baldintzak, eta, hala behar denean, foru arau honetako 10. artikuluko 2. idatz zatian eta 3. idatz zatiko bigarren lerroaldean aipatutako entitateetako kideak, eta eskaerak aurkeztutako modua eta epea.

c) Foru arau honetako 11. artikuluko bigarren idatz zatian aipatutako pertsona juridikoek kaudimenari eta eraginkortasunari dagokienez bete beharreko baldintzak.

d) Dirulaguntza emateko prozedura.

e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, beharrezkoa denean, horien haztapena.

f) Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak.

g) Dirulaguntza emateko prozedura antolatzeke, instruitzeke eta ebazteke eskumena duten organoak, eta ebazpena jakinarazteke epea.

h) Dirulaguntza emateko irizpideen artean, diruz lagundutako proiektu edo jardueran genero ikuspegia txertatzea baloratuko duen irizpide bat erabiliko da, dirulaguntzaren xederako egokia izanez gero.

i) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak dirulaguntzaren xedea bete izana frogatzeko eta jasotako funtsen erabilera justifikatzeko epea eta modua.

j) Dirulaguntza ematen duen organoarentzako bermea jarri behar dela irizten bazaio, bermea eratzeko bideak eta bermea kitatzeko prozedura.

k) Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, baita pertsona onuradunek, hala badagokie, jarri beharko dituzten bermeen araubidea ere.

Bermerik jartzeko eskatu gabe ordainketa aurreratuak aurreikusten direnean, aurreikuspen hori behar bezala justifikatu beharko da.

l) Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzen aldaketaren ondorioz ebazpenak izan ditzakeen aldaketak.

m) Xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (naziokoak, Europar Batasunekoak zein nazioartekoak) emandako dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

n) Dirulaguntzak ematean ezarri diren baldintzak betetzen ez direnean ez betetze horiek mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek erabiliko dira pertsona onuradunak azkenean jasoko duen diru kopurua edo, hala dagokionean, itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko. Irizpide horietan aintzat hartuko da proportzionaltasunaren printzipioa.

ñ) Pertsona eskatzaileen konpromisoa, enpresa ez deslokalizatzeko; eta pertsona onuradunak, deslokalizazioan ez erortzeko, bere zerga egoitza noiz arte eduki behar duen Arabako Lurralde Historikoan.

17. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Dirulaguntza ematen duten administrazio organoek hiru hilean behin ALHAOn argitaratuko dute zer dirulaguntza eman dituzten hiruhilekoan. Iragarkian datu hauek jarri beharko dituzte: deialdia, dirulaguntza ordaintzeko erabiliko diren aurrekontuko programa eta kreditua, onuraduna, dirulaguntzaren zenbatekoa, eta helburua edo helburuak.

2. Honako kasu hauetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzen berri ALHAOn argitaratzea:

a) Dirulaguntza publikoek Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan diru esleipen izenduna dutenean.

b) Foru arau batek edo lege mailako arau batek agintzen duenean dirulaguntza emateko pertsona onuradun jakin bati, eta zenbatekoa zehazten duenean.

c) Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, banaka hartuta, hiru mila euro baino gutxiago direnean, edo, kasua bada, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko foru arauan ezarritako zenbatekoa baino gutxiago direnean. Kasu horretan, oinarri arautzaileek aurreikusi beharko dute beste prozedura batzuk erabiltzea, euren ezaugarri berezien, zenbatekoaren eta kopuruaren arabera pertsona onuradunen publizitatea bermatuko dutenak.

d) Dirulaguntzaren xedea dela eta, pertsona onuradunaren datuak argitaratzea pertsona fisikoen ohorea, norberaren intimitatea eta familiaren intimitatea errespetatu eta babestearen aurkakoa izan daitekeenean, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, ohorerako, pertsonaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearenak, ezarritakoaren arabera, eta araudian hala aurreikusita dagoenean.

3. Pertsona onuradunek behar bezala eman beharko dute aditzera diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketan finantzaketa publikoa, erregelamenduz ezarritako moduan.

4. Dirulaguntzen Gune Nazionalari informazioa igorriko zaio, Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko Lankidetzarako Aldebiko Batzordearen Erabakian ezarritakoari jarraituz, irailaren 16ko 15/2014 Legearekin, sektore publikoa arrazionalizatu eta administrazioa erreformatzeko neurrienarekin, lotuta.

18. artikulua. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa

1. Dirulaguntzaren araudiak finantzaketa propioaren zenbateko jakin bat eskatu ahal izango du diruz lagundutako jarduera estaltzeko. Diruz lagundutako proiekturako edo ekintzarako funts propioen ekarpena foru arau honetako 28. artikuluan ezartzen den bezala frogatu beharko da.

2. Dirulaguntzaren araudiak zehaztu egingo du edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasotzea bateragarria edo bateraezina den, hurrengo idatz zatian xedatzen dena ezertan eragotzi gabe.

3. Dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan inola ere dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

4. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, araudian baimendutako kasuetatik kanpo dauden beste ekarpen batzuk aldi berean jasotzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, dirulaguntzaren araudian ezartzen denari jarraituz.

5. Dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan hala xedatuz gero, pertsona onuradunei igorritako funtsek sortzen dituzten etekin finantzarioek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handituko dute eta, halaber, diruz lagundutako jarduerari aplikatuko zaizkio.

Idatz zati hau ez da aplikatuko pertsona onuraduna administrazio publiko bat denean.

19. artikulua. Bermeen araubidea

Pertsona onuradunek edo entitate laguntzaileek jarri beharreko bermeen, bermeak eratzeko bitartekoen, bermeak gordailutzearen eta kitatzearen araubidea, beharrezkoa denean, dirulaguntza arautzen duten oinarrietan ezarriko da.

Bermeen araubidea dirulaguntzaren xederako egokia izan behar da, eta horren aplikazioaren ondorioz sor litezkeen arriskuen proportzionala.

I. TITULUA**Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak****I. KAPITULUA**

Dirulaguntzak emateko prozedura

20. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak

1. Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagokako araubidean burutuko da.

Foru arau honi dagokionez, norgehiagoka da dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskaerak alderatzen dituen prozedura. Horren bitartez, eskaeren arteko lehentasun ordena ezartzen da, aldez aurretik oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako balorazio irizpideekin bat etorritik. Irizpideok aplikatuz balorazio altuena lortu duten eskaerei esleitzen zaie dirulaguntza, deialdian jarritako muga eta dagoen kreditua gainditu gabe.

Kide anitzeko organo batek, instrukzio organoaren bitartez, dirulaguntza emateko proposamena egingo dio organo emaileari. Kide anitzeko organoaren osaera oinarri arautzaileetan ezarriko da.

Salbuespenez, oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada, organo eskudunak dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko du dirulaguntzetarako jarritako gehieneko zenbateko osoa.

2. Salbuespenez, dirulaguntzaren helburuagatik edo izaeragatik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bidez izapidetzea, oinarri arautzaileetan beren-beregi agerraraziko da norgehiagokarik gabe izapidetuko dela dirulaguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko direla funtsak –baldin eta eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte–, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

3. Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

a) Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan aurreikuspen izenduna dutenak, hitzarmenetan eta dirulaguntzen araudian jasotako baldintzekin.

b) Ematea bera edo zenbatekoa foru arau batean edo lege mailako arau batean ezarrita daukaten dirulaguntzak, laguntza bakoitzari buruzko arau berariazkoari jarraituz aplikatu behar den prozedura baliatuko baita halakoak emateko.

c) Salbuespen modura, beste dirulaguntza batzuk, deialdi publikoa egiteko eragozpenak badaude, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik.

4. Ematen diren dirulaguntzek ezingo dute gainditu deialdian ezarritako gehieneko zenbateko osoa.

II. KAPITULUA

Norgehiagokako araubidean dirulaguntzak emateko prozedura

21. artikulua. Prozedura hastea

1. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da beti.

2. Prozedura ofizioz hasteko, organo eskudunak deialdia onartuko du beti, eta bertan gartuko da deialdiko dirulaguntzak emateko prozedura, kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz eta administrazio prozedurari buruzko oinarriko araudiaren printzipioekin bat etorritik. Deialdian honako hauek jaso beharko dira:

a) Oinarri arautzaileak zein xedapenek ezarri dituen eta xedapen hori zein aldizkari ofizialetan argitaratu den, salbu eta oinarriak, bereziak izanik, deialdian bertan jasotzen badira.

b) Aurrekontuko zeintzuk kredituri egotziko zaien dirulaguntza, eta zein den deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, guztira, kreditu erabilgarrien barruan, eta zein den zenbateko gehigarria, halakorik bada.

Deialdian, kreditu erabilgarrien barruko gehieneko zenbateko osoa finkatzeaz gainera, diru kopuru gehigarria finkatu ahal izango da (zenbateko zehatza edo ehunekoa), eta ez da beste deialdi bat egin beharrik izango diru kopuru hori dirulaguntzak emateko erabili ahal izateko.

Diru kopuru gehigarri hori finkatu eta erabili ahal izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

– Diru kopuru gehigarria erabili ahal izateko, aukera hori aurreikusita eta zenbatekoa finkatuta egon behar dira deialdian.

– Gehieneko zenbatekoa handitzea xedatzen duen ebazpena deialdia bezala argitaratu beharko da, eta argitaratze horrek ez du berekin ekarriko eskaera gehiago aurkezteko eperik hastea, ezta ebazteko epe berririk hastea ere.

c) Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.

d) Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emango direla, edo, salbuespenez norgehiagokarik gabe ematen badira, salbuespen hori zergatik egingo den.

e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek frogatzeko modua.

f) Prozedura instruitzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.

g) Eskaerak aurkezteko epea. Eskaerei artikulua honetako 3. idatz zatian ezarritakoa aplikatuko zaie.

h) Ebazteko eta jakinarazteko epea.

i) Eskaerari erantsi beharreko agiriak eta informazioak.

j) Kasua bada, eskaerak birformulatzeko aukera, foru arau honetako 25. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

k) Ebazpenak administrazio bidea amaitzen ote duen, eta, horrela ez bada, zein organori aurkeztu behar zaion gora jotzeko errekurtsua.

l) Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko dirulaguntzak norgehiagokarik gabe ematen direnean.

m) Jakinarazi edo argitaratzeko bidea, administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko araudian ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Interesdunen eskaerekin batera, arauan edo deialdian zehaztutako agiriak eta informazioak aurkeztuko dira, salbu eta eskatutako agiri horiek jada Foru Aldundiko edozein organoren esku daudenean; horrelakoetan eskatzaileak administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko araudian ezarritakoari heldu ahal izango dio, betiere agiriak zein egunetan aurkeztu ziren eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren adierazita, eta gehienez bost urte igaro badira agiri horiei zegokien prozedura amaitu zenetik.

Agiriren bat lortzeko modurik ez badago, organo eskudunak eskatzaileari errekerimendua egin ahal izango dio hura aurkez dezan, edo, bestela, agiri horretan egiaztatutako baldintzak beste bide batzuetatik frogatu ditzan, ebazpen proposamena egin aurretik.

Pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

Eskabideen eta agiri osagarrien aurkezpen telematikoa administrazio prozedura erkideari buruzko oinarrizko araudian ezarritako moduan egingo da.

4. Aurreko idatz zatietan xedatutakoari dagokionez, dirulaguntzaren araudian onartu ahal izango da zenbait agiri aurkeztu ordezkatzailaren erantzukizunpeko adierazpena aurkez dadin. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egin aurretik, errekerimendua egin beharko da, erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuak frogatzeko agiriak aurkez daitezzen hamabost eguneko epean, gehienez.

5. Eskabideak deialdiko arauan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, organo eskudunak errekerimendua bidaliko dio interesdunari, hamar eguneko epe luzaezina pasatu baino lehen eskabidea zuzendu dezan, eta adieraziko dio agindutakoa egin ezean eskaeran atzera egintzat joko dutela, aurretik ebazpena emanda, zeina administrazio prozedura erkideari buruzko oinarrizko araudian ezarritako moduan emango baita.

22. artikulua. Instrukzioa

1. Deialdian izendatzen den organoaren ardura izango da dirulaguntzak emateko prozedura instruitzea.

2. Instrukziorako eskumena duen organoak, ofizioz, beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu, ebazpen proposamenak oinarri izan behar dituen datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

3. Instrukzio jarduerak honako hauek hartuko dituzte barnean:

a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren edo dirulaguntzari buruzko arauetan ezarrita dauden txostenak eskatzea.

b) Eskaerak ebaluatzea, dirulaguntzari buruzko arauan edo, kasua bada, deialdian ezarritako baloraziorako irizpide, modu eta lehentasunen arabera.

Dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusten denean, ebaluazio aurreko fasea ezarri ahal izango da. Fase horretan egiaztatuko da dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen direla.

4. Norgehiagokako prozedura erabiltzen denean, behin eskabideak aztertuta, foru arau hone-tako 20. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren kide anitzeko organoak ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua, egindako ebaluazioaren emaitza jasoko duena. Instrukzio organoak ebazpen hori igorriko dio bera onartzeko eskumena duen organoari.

5. Norgehiagokarik gabeko prozeduran, instrukzio organoak proposamena igorriko dio, behar bezala arrazoituta, ebazteko eskumena duen organoari.

23. artikulua. Ebazpena

1. Organo eskudunak prozedura ebatziko du instrukzio organoak egindako ebazpen propo-samenarekin bat etorriz, administrazio prozedura erkideari buruzko oinarrizko araudian edota kasuan kasuko arau edo deialdian ezarritakoari jarraituz.

2. Dirulaguntzaren oinarri arautzaileek xedatzen duten moduan arrazoituko da organo esku-dunaren ebazpena. Betiere, prozeduran egiaztatuta geratu behar dira ebazpen horren funtsak.

3. Dirulaguntza emango zaien eskatzaileen zerrenda jasoko da ebazpenean, eta, halaber, berariaz agerraziko da gainerako eskaeren ezespina, halakorik egonez gero.

4. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea gehienez sei hilabetekoa izango da, salbu eta lege mailako arauen batek edo foru arauen batek epe luzeagoa ezartzen dutenean edo Europar Batasuneko araudian epe luzeagoa ezartzen denean. Deialdia argitaratzen den unean hasiko da epea, deialdian epearen hasiera beste egun batera atzeratu ezean.

5. Gehieneko epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela.

24. artikulua. Ebazpena jakinaraztea

Prozeduraren ebazpena administrazio prozedura erkideari buruzko oinarritzko araudian ezarritako eran jakinaraziko zaie interesdunei. Jakinarazpen edo argitalpen hori aipatutako araudian jasotako xedapenei lotuko zaie.

25. artikulua. Eskabideak birformulatzea

1. Dirulaguntzaren xedea eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, pertsona onuradunari bere eskabidea birformulatzeko eskatu ahal izango zaio –horrela aurreikusi bada oinarri arautzaileetan–, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

2. Kide anitzeko organoak eskabideari oniritzia eman eta gero, eskabidea, jarduketa guztiekin batera, organo eskudunari igorriko zaio, ebazpena eman dezan.

3. Eskabideak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerak baloratzeko ezarritako irizpideak ere.

III. KAPITULUA

Dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura

26. artikulua. Dirulaguntzak zuzenean ematea

1. Dirulaguntzak emateko ebazpenetan eta, kasua bada, dirulaguntzak bideratzeko sinatzen diren hitzarmenetan, aplikatu beharreko baldintzak eta konpromisoak ezarriko dira, foru arau honetan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Hogeigarren artikuluko 3. idatz zatiko c) letran arautzen diren dirulaguntzak emateko ebazpenetan eta, kasua bada, dirulaguntza horiek bideratzeko sinatzen diren hitzarmenetan, gutxienez honako hauek jasoko dira:

a) Dirulaguntzaren xedea; dirulaguntza zerk egiten duen berezi argitu behar da, eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioaren arrazoiak azaldu behar dira, bai eta deialdi publikoa egitea eragozten duten arrazoiak ere.

b) Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

c) Pertsona onuradunak eta laguntza modalitateak.

d) Dirulaguntzak emateko prozedura; eta onuradunek eta, kasua bada, entitate laguntzaileek dirulaguntza ezarritako xederako erabili dutela frogatzeko araubidea.

3. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen esparruan Diputatuen Kontseilua izango da organo eskuduna aurreko 2. idatz zatian aipatutako dirulaguntzak baimentzeko.

4. Artikulu honen 2. atalean araututakoaren babesean emandako dirulaguntzak Arabako Nagusiei jakinarazi beharko zaizkie dirulaguntzak eman eta astebeteko epean, gehienez, Hori guztia 53/92 Foru Arauaren 131. Artikuluan araututakoaren kaltetan joan gabe.

IV. KAPITULUA

Dirulaguntza publikoak kudeatzeko eta justifikatzeko prozedura

27. artikulua. Pertsona onuradunek dirulaguntzaren xede diren jarduerak azpikontratzea

1. Foru arau honi dagokionez, pertsona onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertuko da, dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batez hirugarren pertsona batzuek egitea hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da pertsona onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2. Pertsona onuradunak jarduera osorik edo zati batez azpikontratatzeko aukera izango du bakar-bakarrik dirulaguntzaren araudiak aldez aurretik horrela ezartzen duenean. Pertsona onuradunak hirugarren batzuekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako jarduerak ez du dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako portzentajea gaindituko. Ez bada ehunekorik zehaztu, pertsona onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamar azpikontratatu ahal izango du, gehienez.

Diruz lagundutako jardueraren kostua handitu baina jarduera horren edukari balio erantsirik ematen ez dioten jarduerak ezingo dira inola ere azpikontratatu.

3. Hirugarren batzuekin adosturiko jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko hogeia gainditzen duenean eta zenbateko hori hirurogei mila eurotik gorakoa denean, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Dirulaguntza eman duen erakundeak kontratua egiteko baimena ematea aldez aurretik, oinarri arautzaileetan zehazten den moduan.

4. Kontratuak ezingo dira zatitu euren zenbatekoa murrizteko, aurreko idatz zatian ezarritako betekizunak saihesteko asmoz.

5. Kontratatutako pertsona onuradunarekikoak baino ez dituzte bete behar izango, eta Administrazioaren aurrean pertsona onuradunak hartuko du bere gain diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa.

6. Aurreko idatz zatian ezarritakoari dagokionez, pertsona onuradunaren erantzukizuna izango da, diruz lagundutako jarduera hirugarrenekin hitzartuz gero, dirulaguntzari buruzko araudian ezarritako mugak errespetatu daitezzen arduratzea, diruz lagungarriak diren gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez; eta kontratatutako, berriz, foru arau honen 42. artikuluan azaltzen den betebeharra izango dute, hau da, muga horiek errespetatzen direla behar bezala egiaztatzeko laguntza eman beharko dute.

7. Pertsona onuradunak inola ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat honako hauekin:

a) Foru arau honen 12. artikuluan jaso diren debekuetariko baten bat duten pertsona edo entitateekin.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horientzako ordainketak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko gisa zehazten badira, salbu eta ordainketa hori justifikatuta dagoenean egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatuko balioa erreferentziatzen hartuta.

d) Pertsona onuradunari lotutako pertsona edo entitateekin, honako inguruabar hauek gertatu ezik:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza arrunten arabera egitea.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea, oinarri arautzaileetan ezarritako moduan.

e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatu duten pertsona edo entitateekin, baldintzak ez betetzeagatik edo balorazio nahikoa ez lortzeagatik dirulaguntzarik jaso ez badute.

28. artikulua. Dirulaguntza publikoen justifikazioa

1. Erregelamenduz zehazten den eran dokumentatuko da dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete eta lortzearen justifikazioa; egindako gastua justifikatzen duen kontuaren bitartez egin liteke, edo, bestela, gastu hori moduluka frogatu liteke, edo kontabilitateko egoera orriak aurkeztuz, araudian xedatzen denari jarraituz.

2. Justifikazio kontua egitea pertsona onuradunaren edo entitate laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan jaso behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren frogagiriak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela egiaztatu ahal izan dadin. Justifikazio kontuaren forma eta hura aurkezteko epea dirulaguntza publikoaren kasuan kasuko oinarri arautzaileek ezarriko dituzte.

Oinarri arautzaileetan ezer ezarri ezean, justifikazio kontuan jaso behar da dirulaguntzarekin finantzatu diren jardueren eta horien kostuaren adierazpena, eta gastu bakoitza bereizita azalduko da. Jarduera egiteko epea amaitzen denetik gehienez hiru hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da justifikazio kontua.

3. Gastuak frogatzeko fakturak aurkeztuko dira, edo frogagiri baliokideak, merkataritzako trafiko juridikoa baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, erregelamenduz ezarritako moduan.

Gastuak faktura elektronikoen bitartez ere frogatu ahal dira, betiere zergen arloan horrelakoak onartzeko eskatzen diren betekizunak betetzen badira

Gastuaren frogagiriak balidatzeko eta zigilatze sistemak ezarri ahal izango da, dirulaguntzen konkurrentziaren kontrola ahalbidetuko duena.

4. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko dirulaguntzaz gainera norberaren funtsak edo bestelako dirulaguntza edo baliabideak ere erabiltzen badira, justifikazioan horiek aipatu behar dira: jarduerarako erabili direla frogatu, zenbatekoa zehaztu eta nondik lortu diren azaldu.

5. Ondasun higiezinak erosten badira, artikuluko 3. idatz zatian aipatutako frogagiriez gainera, tasatzaile independente batek egindako ziurtagiria aurkeztu behar da. Tasatzaile hori behar bezala baimenduta eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon behar da.

6. Foru arau honen 10. artikuluko 2. idatz zatian eta 3. idatz zatiko bigarren erroaldean aipatutako entitateetako kideek justifikatu egin behar dituzte pertsona onuradunaren izenean eta haren kontura egindako jarduerak, aurreko idatz zatietan zehazten den moduan. Dokumentazio hori dirulaguntza eskatu zuen onuradunak aurkeztu beharreko justifikazioaren zati izango da.

7. Dirulaguntzaren hartzailearen egoera jakin bat oinarri hartuta ematen diren dirulaguntzen kasuan, nahikoa izango da hartzaileak duen egoera frogatzea, dirulaguntza eman aurretik, eta horretarako, zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabili ahal izango da; nolahi ere, egoera hori egiaztatze kontrolak ezarri ahal izango dira.

8. Dirulaguntza kapitulu honetan ezarritakoaren arabera justifikatzeko betebeharra ez betetzeak edo hura behar bezala ez justifikatzeak dirulaguntza itzuli beharra ekarriko du, foru arau honen 35. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

29. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Foru arau honetan ezarritakoari dagokionez, hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: lagundutako jardueraren izaerarekin batera zalantzarik gabe bat datozen, hertsiki beharrezkoak diren eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten diren gastuak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskurapen balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

2. Dirulaguntzen oinarri arautzaileetan berariaz kontraktorik xedatu ezean, egindako gastutzat honako hau joko da: dirulaguntzaren araudian zehaztutako justifikazio epea amaitu aurretik benetan ordaindu den gastua.

3. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruzko arauetan kontratu txikietarako finkatutako zenbatekoak baino gehiagokoa bada eta, betiere, hirugarrenekin kontratatzen bada, pertsona onuradunak hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu behar ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen

ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok eman edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez bada, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala behar denean, dirulaguntzaren eskabidean; haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira memoria batean.

4. Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, arau hauek beteko dira:

a) Oinarri arautzaileetan ezarriko da pertsona onuradunak zer epetan erabili beharko dituen ondasunak dirulaguntzaren xederako. Epe hori gutxienez bost urtekoa izango da erregistro publikoan inskribatzen diren ondasunen kasuan, eta gutxienez bi urtekoa gainerako ondasunetarako.

Erregistro publikoan inskribatzen diren ondasunen kasuan, eskrituran agerrarazi beharko da inguruabar hori, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta kontu horiek kasuan kasuko erregistro publikoan inskribatu beharko dira.

b) Aurreko leerroaldean aipatutako betebeharra, ondasunaren xedeari dagokiona, urratutzat joko da ondasuna besterentzen bada edo kargaren bat jartzen bazaio. Ez betetze horrek dirulaguntza itzuli beharra ekarriko du, foru arau honen 35. artikuluan ezarritako moduan, eta ondasuna itzulketaren ordainketari atxikita geratuko da, pertsona edukitzailea edozein dela ere, salbu eta erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat bada, edo frogatzen bada ondasunak onustez eta bidezko tituluarekin eskuratu direla, edo merkataritzako nahiz industriako establezimendu batean eskuratu direla, inskribatzen ez diren ondasun higigarriak izanez gero.

5. Xedeari buruz 4. idatz zatian aipatutako betebeharra ez da urratutzat joko honako kasu hauetan:

a) Erregistro publikoan inskribatzen ez diren ondasunak izanez gero, beste ondasun batzuekin ordeztzen badira eta azken horiek ere aurrekoen antzera balio badute dirulaguntzaren xedea betetzeko, eta ezarritako epearen amaierara arte erabiltzen badira xede horretarako, eta, betiere, dirulaguntza eman duen organoak ordezte hori baimendu badu.

b) Erregistro publikoan inskribatzen diren ondasunak izanez gero, dirulaguntza eman duen organoaren baimenaz xedea aldatzen bazaie, besterentzen badira edo kargaren bat jartzen bazaie. Horrelakoetan eskuratzaileren betebeharra izango da ondasunak dirulaguntzaren xederako erabiltzea ezarritako epea amaitu arte, eta, hori betetzen ez badu, dirulaguntza itzuli beharko du.

6. Dirulaguntzen oinarri arautzaileetan arau bereziak ezarriko dira, beharrezkotzat jotzen bada, ondasun inbentariagarrien amortizazioari buruz. Nolanahi ere, amortizazio gastua diruz lagungarria izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Dirulaguntzak ondasunak erosteko erabili ez izana.

b) Onarpen zabaleko kontabilitate arauak erabiltzea amortizazioa kalkulatzeko.

c) Dirulaguntzaren aldiari soilik dagokion kostua izatea.

7. Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzariokoak, notario gastuak edo erregistrokoak eta perituen gastuak eta berariazko administrazioko gastuak diruz lagungarriak izango dira baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko lotura badute eta hura egoki prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira, edota horrela aurreikusten bada oinarri arautzaileetan. Salbuespenez, bankuaren bermearen gastuak diruz lagundu ahal izango dira horrela aurreikusten bada dirulaguntzaren araudian.

Aldiz, honako gastu hauek inoiz ezin dira dirulaguntzaren xede izan:

a) Banku kontuetako interes zordunak.

b) Zehapen administratiboak eta penalak, errekarquak eta interesak.

c) Prozedura judizialeko gastuak.

8. Zergak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, dirulaguntzaren onuradunak egiaz ordaintzen dituenen. Ez dira, inola ere, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

9. Pertsona onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduerari egotziko dio zeharkako kostuen zentzuzko zatia, orokorki onartutako kontabilitateko printzipio eta arauekin bat etorritik eta, nolahi ere, kostu horiek jarduera benetan egin den denboraldiari dagozkion neurrian.

30. artikulua. Dirulaguntzen egiaztapena

1. Organo emaileak egiaztatu egingo du dirulaguntza behar bezala justifikatu dela eta dirulaguntza emateko oinarri izan den jarduera egin dela eta xedea bete dela.

2. Entitate laguntzaileak, halakorik badago, foru arau honen 14. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran azaltzen diren egiaztapenak egingo ditu organo emailearen izenean eta haren kontura.

31. artikulua. Balioen egiaztapena

1. Administrazioak egiaztatu ahal izango du diruz lagundutako gastuen merkatuko balioa, bide hauetako bat edo batzuk erabiliz:

a) Merkatuko batez besteko prezioak.

b) Estatuko eta atzerriko merkatuetako kotizazioak.

c) Zerga erregistro ofizialetan ageri diren balioen arabeko zenbatespena.

d) Administrazioako perituen irizpena.

e) Peritu tasazio kontrajarria.

f) Zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabide.

2. Administrazioak egiaztatutako balioa oinarritzat hartuko da dirulaguntza kalkulatzeko, eta jakinarazi egingo da, behar bezala arrazoituta eta erabilitako bitartekoak eta irizpideak azalduta, dirulaguntzaren likidazioa barruan daukan egintzaren ebazpenarekin batera.

3. Pertsona onuradunak, betiere, peritu tasazio kontrajarria sustatu ahal izango du, balioak egiaztatuzko gainerako prozedurak, artikuluko honetako 1. idatz zatian aipatutakoak, zuzentze aldera, Administrazioak aurreko idatz zatian aipatu den ahalmena erabiltzen duen prozeduraren ebazpenaren aurka jar daitezkeen lehenengo errekursoaren epearen barruan.

Peritu tasazio kontrajarriaren eskaera aurkezten denean, eten egingo dira ebatzitzeko prozeduraren betearazpena eta prozedura horren aurka errekurtsioa jartzeko epea.

4. Administrazioak egiaztatutako balioaren eta pertsona onuradunaren perituak egindako tasazioaren arteko aldea ehun eta hogeita mila eurotik beherakoa eta Administrazioak egiaztatutako balioaren ehuneko hamarretik beherakoa bada, pertsona onuradunaren perituaren tasazioa hartuko da dirulaguntza kalkulatzeko oinarri gisa. Horrela ez bada, hirugarren peritua izendatu beharko da erregelamenduz zehazten den moduan.

Pertsona onuradunaren perituaren ordainsariak pertsona onuradunak ordainduko ditu. Hirugarren perituak egindako tasazioa pertsona onuradunak justifikatutako balioa baino gutxiago bada, onuradunak ordainduko ditu peritu lanen gastu guztiak; eta, aldiz, gehiago bada, peritu lanen gastuak Administrazioaren kontura izango dira.

Hirugarren perituaren balorazioa oinarritzat hartuko da dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko.

V. KAPITULUA

Aurrekontu kudeaketarako prozedura

32. artikulua. Gastua onartzeko eta ordaintzeko prozedura

1. Dirulaguntzaren deialdia egitean edo dirulaguntza zuzenean ematean, edo aurretik, gastua onartu beharko da, araudi aplikagarrian ezarritako eran.

2. Dirulaguntza emateko ebazpenak gastua egiteko konpromisoa ekarriko du berekin.

3. Dirulaguntza ordaindu aurretik, pertsona onuradunak frogatu egin beharko du dirulaguntzaren xede den jarduera edo proiektua egin, helburua lortu edo jokabidea hartu duela, dirulaguntzaren araudian ezarritako moduan.

Dirulaguntza osoa edo zati bat kobratzeko eskubidea galduko da justifikaziorik aurkezten ez bada edo foru arau honetako 35. artikuluan arautzen diren kausetariko baten bat gertatzen bada.

4. Arau orokor gisa, eta dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko hamarreko muga gainditu gabe, justifikazioaren aurretik funtsak eman ahal izango dira aurrerakin modura, dirulaguntzaren xede diren asmoak, jarduerak edo proiektuak gauzatu ahal izateko behar den finantzaketa gisa.

5. Aurrekoa gorabehera, dirulaguntza dela kausa hala justifikatzen denean, dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko harretik gorako aurrerakinak eman ahal izango dira, bai eta konturako ordainketak egin ere, ordainketa partzial gisa, horien zenbatekoa aurretiaz justifikatuta, emandako dirulaguntzaren aplikazio moduan. Bi kasuetan ere berariaz aurreikusi behar dira oinarri arautzaileetan –edo dirulaguntza emateko ebazpenean, zuzeneko dirulaguntzen kasuan– emate horren aukera, mugak eta baldintzak, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak aldeko txostena eman behar du. Txosten hori loteslea izango da, eta jarri beharreko bermeak finkatuko ditu.

Inola ere ezingo zaie pertsona onuradunei ordainketa aurreraturik egin, konkurtsoaren deklarazioa eskatu badute, kaudimengabe deklaratu badituzte edozein prozeduratan, konkurtsoaren deklarazioa jaso badute, esku hartze judizialaren menpe badaude edo ezgaituta badaude Konkurtso Legearen arabera eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitasun aldia amaitu gabe badago, porrota edo hartzekodunen konkurtsoa deklaratu bazaie, edo kaudimengabe kobraezin deklaratu badituzte edozein prozeduratan edo esku hartze judizialari lotuta badaude, kita eta itxaronaldi prozedura edo ordainketa etendura hasi badute edo porrotaren zein hartzekodunen konkurtsoaren eskaera judiziala aurkeztu badute, hariak eta birgaituak izan arte.

6. Artikulu honetako 4. eta 5. idatz zatietako mugak ez dira aplikatuko dirulaguntzaren zenbatekoak ez badu gainditzen kasuan kasuko aurrekontua gauzatzeko foru arauan ezarritako gehieneko zenbatekoa, edo dirulaguntzaren onuraduna administrazio publiko bat bada.

7. Dirulaguntza ezin izango da ordaindu pertsona onuraduna bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean, edo itzulketa bidezkotzat jotzen duen ebazpen baten ondorioz zordun den bitartean.

33. artikulua. Ordainketak atxikitzea

1. Itzulketaren prozedura hastea erabakiz gero, edo justifikaziorako epea justifikaziorik aurkeztu gabe amaituz gero, kautelazko neurri gisa, organo emaileak erabaki dezake pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari ordaindu gabe dauden diru kopuruen libramenduak etetea, inola ere gainditu gabe itzulketa espedientea hasteko proposamenean edo ebazpenean finkatutako zenbatekoa, ordura arte sortutako berandutze interesekin batera.

2. Ebazpen arrazoitu baten bidez erabaki behar da kautelazko neurri hori. Ebazpena interesdunari jakinarazi behar zaio eta zein errekurso jar ditzakeen adierazi behar zaio.

3. Nolanahi ere, etete hori bidezkoa izango da baldin eta itzulketarik lortuko ez dela uste izateko zentzuzko arrazoiak badaude, edo itzulketa zapuztu edo eragotzi badaiteke, eta, bereziki, hartzaileak bere ondasunak ezkutatzeko, zamatzeko edo baliatzeko egintzaren bat egiten badu.

4. Ordainketen atxikipenak, aurreko kasuetatik edozeinetan, araubide juridiko hau izango du:
- a) Lortu nahi den helburuaren neurrikoa izan behar da, eta nekez konpondu edo ezin konpondu litezkeen ondorioak sor baditzake, ez da inoiz gauzatu behar.
 - b) Itzulketa espedientearen amaierako ebazpena eman arte edo justifikazioa aurkeztu arte iraun behar du, eta ezin du gainditu bera izapidetzeko ezartzen den gehieneko aldia, luzapenak barne.
 - c) Aurreko erroaldean xedatutakoa gorabehera, atxikipena kendu egin behar da bera eragin duten inguruabarrak desagertzen direnean, edo interesdunak kautelazko neurri horren ordeztu bermea jartzea proposatzen duenean, bermea nahikotzat jotzen bada.

II. TITULUA

Dirulaguntzak itzultzea

I. KAPITULUA

Itzultzea

34. artikulua. Dirulaguntza emateko ebazpena baliogabetzea

1. Dirulaguntza emateko ebazpena baliogabetzeko arrazoiak dira:
 - a) Administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudian ezartzen diren arrazoiak.
 - b) Krediturik ez edukitzea edo nahikoa ez izatea, aplikatu beharreko araudian ezartzen denarekin bat etorritik.
2. Dirulaguntza emateko ebazpena baliorik gabe uzteko arrazoiak dira antolamendu juridikoaren gainerako arau hausteak eta, batik bat, foru arau honetan ezartzen diren erregelak haustea, administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudian xedatzen denarekin bat etorritik.
3. Dirulaguntza emateko egintzan aurreko idatz zatietan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatuz gero, hura eman duen organoak ofizioz berrikusiko du edo, bestela, egintza kaltegarria izan dela adieraziko du eta gero aurkaratu egingo du, administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudian ezartzen denarekin bat etorritik.
4. Dirulaguntza emateko ebazpena deuseztatzen edo baliogabetzen duen adierazpenak (administratiboa zein judiziala) berekin ekarriko du jasotako kopuruak itzuli behar izatea.
5. Hurrengo artikuluan dirulaguntza itzuli behar izateko ezartzen diren arrazoietakoa bat gertatzen denean, hura emateko egintza ez da berrikusi beharko ofizioz.

35. artikulua. Dirulaguntza itzultzeko arrazoiak

1. Hurrengo kasuetan jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu denetik itzuli behar dela erabaki arte sortutako berandutze interesak eskatuko dira:
 - a) Dirulaguntza jasotzea bete beharreko baldintzak faltsututa edo kontzesioa eragotziko zuten daturen bat ezkatututa.
 - b) Dirulaguntza emateko ezinbestekotzat jotzen den helburua, jarduera edo proiektua ez betetzea (erabat edo zati bat) edo hartarako ezarritako jarrera ez edukitzea.
 - c) Dirulaguntza justifikatu beharra ez betetzea edo justifikazioa nahikoa ez izatea, foru arau honetako 28. artikuluan eta, beharrezkoa bada, dirulaguntzei buruzko arauetan ezartzen denarekin bat etorritik.
 - d) Dirulaguntzaren berri emateko neurriak, foru dekretu honetako 17. artikuluko 3. idatz zatian arautzen direnak, ez ezartzea.
 - e) Foru arau honetako 13. eta 14. artikuluetan ezartzen diren egiaztapeneko eta finantza kontrolleko jarduketak ez onartzea edo haiei traba egitea edo aitzakiak edo oztopoak jartzea; halaber,

kontabilitateko, erregistroko eta agirien zaintzaren arloko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu hartutako funtsak zertarako erabili diren, helburua bete den, diruz lagundutako jarduerak benetan eta etengabe egin diren, eta helburu bererako estatuko edo Europar Batasuneko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatuen edo nazioarteko erakundeen dirulaguntza edo laguntza gehiago jaso den.

f) Dirulaguntza dela eta Foru Administrazioak entitate eta pertsona onuradunei ezartzen dizkien betebeharrak eta haiek hartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta konpromiso eta betebeharrak horiek dirulaguntza jasotzeko oinarri diren helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua burutzeko edo jokabidea hartzeko moduari eragiten badiote edo berari buruzkoak badira.

g) Dirulaguntza dela eta Foru Administrazioak entitate laguntzaileei eta pertsona onuradunei ezartzen dizkieten betebeharrak eta horiek hartzen dituzten konpromisoak (aurreko puntukoak ez beste batzuk) ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu nola erabili diren funtsak, dirulaguntzaren helburua bete den, diruz lagundutako jarduerak benetan eta etengabe egin diren, eta helburu bererako estatuko edo Europar Batasuneko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatuen edo nazioarteko erakundeen dirulaguntza edo laguntza gehiago jaso den.

h) Europar Batasunaren Itunak 87 – 89 bitarteko artikuluetan xedatzen duenaren arabera, dirulaguntza itzuli behar dela erabakitzea.

i) Pertsona eskatzaileak enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa ez betetzea, edo pertsona onuradunak bere zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez edukitzea ezarritako aldiak.

j) Dirulaguntzen araudian ezartzen diren gainerako kasu guztiak.

2. Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak bere betebeharrak ia osorik burutzen baditu eta frogatzen badu benetan konpromisoak betetzeko asmoarekin jardun duela, itzuli beharreko kopurua ezartzeko foru arau honetako 16. Artikuluko 2. Idatz zatiko ñ) letran azaltzen diren irizpideak aplikatuko dira.

3. Halaber, foru arau honetako 18. artikuluko 3. idatz zatian arautzen den kasuan, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik jasotako kopurua (soberakina) itzuli beharko da, eta bidezko berandutze interesak eskatuko dira.

36. artikulua. Itzuli beharreko kredituen eta itzultzeko eskatzeko prozeduren izaera

1. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru sarrerak izango dira eta aplikatzen den araudian ezartzen denarekin bat etorritik kobratuko dira.

2. Dirulaguntzen arloko berandutze interesen tasa interesa eska daitekeen aldiak indarrean dagoen diruaren legezko interes tasa izango da, foru arau bidez besterik ezarri ezean.

3. Europar Batasunaren funtsen itzulketen xedearen tratamendua Batasuneko araudian ezartzen dena izango da.

4. Dirulaguntza itzultzeko eskatzeko prozedura guztiak administratiboak izango dira.

5. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari ahalmena ematen zaio xedatzeko kopuru jakin batetik beharrezko itzulketak, hain zuzen ere ordainarazpenak eta bilketak eragingo luketen kostua estaltzen ez dutenak, ez direla eskatu behar.

37. artikulua. Zorrek konpentsatzea

Dirulaguntza baten onuradun gertatzen den pertsona batek dirua zor badio Foru Ogasunari, dirulaguntza ordaintzeko modua izan daiteke kopuru horrekin Ogasunarekin dituen zorrek, zergetakoak ez besteak, konpentsatzea.

38. artikulua. Preskripzioa

1. Administrazioak itzulketa onartzeko edo likidatzeko daukan eskubidea lau urte pasatutakoan preskribatuko da.

2. Epealdi hori honela zenbatuko da:

a) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak justifikazioa aurkezteko epealdia amaitzen denetik.

b) 28. artikuluko 7. idatz zatiko kasuan, dirulaguntza ematen denetik.

c) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak aldi jakin batean bete edo mantendu beharreko baldintzarik edo betebeharririk ezarritz gero, aldi hori amaitzen denetik.

3. Preskripzioaldiaren zenbaketa kasu hauetan etengo da:

a) Administrazioak dirulaguntza itzuli behar izateko arrazoiren bat gertatzen ote den argitzeko egintza bat egiten duenean, pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari formalki jakinarazita.

b) Errekurtsoa (nolanahikoa) jartzen denean, jurisdikzio penalari erruduntasun testigantza bidaltzen zaionean edo Fiskaltzari salaketa aurkeztean zaionean, eta errekurtsoen izapideetan jarduketak egiten direnean, pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari formalki jakinarazita.

c) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak dirulaguntza edo itzulketa likidatzeko jarduketa sinesgarria egiten duenean.

39. artikulua. Dirulaguntza ordaindu behar duten pertsonak

1. Foru arau honetako 35. artikuluan aipatzen diren kasuetan pertsona onuradunek eta entitate laguntzaileek jasotako kopuru osoa edo haren zati bat itzuli beharko dute, bidezko berandutze interesak gehituta, 29. artikuluko 5. idatz zatiko b) letran xedatzen dena gorabehera. Horrez gainera, kasu batzuetan baliteke zehapena ere ezartzea.

2. Foru arau honetako 10. artikuluko 2. idatz zatian eta 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren pertsona eta erakundeetako kideek erantzukizun solidarioa edukiko dute onuradunaren itzulketa betebeharra dela eta, hartutako konpromisoaren arabera egin beharreko jarduera dirulaguntzadunei dagokienez.

Pertsona onuradunak ez badauka jarduteko gaitasunik, haren legezko ordezkariak dirulaguntza itzuli beharraren erantzule solidarioak izango dira.

Onuraduna ondasun erkidegoa edo beste mota bateko batasun ekonomikoa edo ondare bariatua izanez gero, 10. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren erakundeetako kideak, partaideak edo titularkideak erantzule solidarioak izango dira, bakoitza bere partaidetzaren proportzioan.

3. Urratutako betebeharra betetzeko ardurapeko beharrezko egintzaren bat egin ezean, urratzerako bidea zabaltzen duen erabakia hartuz gero edo mendeko batek halako erabakia hartzea onartuz gero, merkataritza sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dirulaguntza itzuli beharraren erantzule subsidiarioak izango dira.

Jarduerari uzten dioten pertsona juridikoen legezko ordezkariak haien itzulketa betebeharraren erantzule subsidiarioak izango dira, aplikatu beharreko lege edo estatutu xedapenekin bat etorritz.

4. Onuraduna desegindako eta likidatutako sozietatea edo entitatea izanez gero, dirulaguntza itzuli beharra bazkideei edo kapitaleko partaideei eskualdatuko zaie, eta horiek modu solidarioan erantzun beharko diote, muga honekin: adjudikatutako likidazio kuotaren balioa.

5. Dirua itzuli behar duena hitzen bada, itzuli gabe dauden kopuruak ordaindu beharra beharrezko kausadunei eskualdatuko zaie, zuzenbide zibil erkidean, foralean edo berezian kasu jakin batzuetako oinordetzaz, batez ere jaraunspena inbentario emaitzaren arabera onartzen denean gertatzen dena, ezartzen dena gorabehera.

II. KAPITULUA

Dirulaguntza itzultzeko prozedura

40. artikulua. Dirulaguntza itzultzeko prozedura ebazteko eskumena

1. Dirulaguntza eman duen organoak edukiko du pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari itzultzeko eskatzeko eskumena, foru arau honetako 35. artikuluan dirua itzuli behar izateko ezartzen diren kasuetako bat gertatuz gero. Horretarako kapitulu honetan arautzen den prozedura ebatzi beharko du.

2. Europar Batasuneko organo batek erabakitzen badu onuradun batek dirulaguntza itzuli behar duela, baliabidearen kudeaketaren ardura daukan organoak betearaziko du erabakia.

3. Dirulaguntza Europako Batzordeak edo Batasuneko beste erakunde batek eman badu eta itzuli beharra berariazko legezko gaitasuna daukan erakunde batek egindako fiskalizazio jarduketaren ondorioz sortzen bada (foru arau honetako III. tituluaren arautzen den dirulaguntzen finantza kontrolaz bestelako jarduketak), dirulaguntza itzultzeko erabakia haren eskumena daukan organo kudeatzaileak emango du. Erabaki hori ofizioz edo legez funts publikoak fiskalizatzeko gaitasuna daukan administrazioko beste erakunde edo organo batek proposatuta emango da.

41. artikulua. Itzultzeko prozedura

1. Dirulaguntzak itzultzeko prozeduran administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudian administrazio prozedurez ezartzen diren xedapen orokorrak aplikatuko dira.

2. Dirulaguntza bat itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, hura emateko eskumena daukan organoak ebazpen baten bidez; hori bere ekimenez edo goragoko aginduaren ondorioz egin dezake, beste organo baten eskaera arrazoituak eraginda edo salaketa baten ondorioz.

Halaber, dirulaguntza bat itzultzeko prozedura finantza kontroleko txostenaren ondorioz ere abiaraz dezake hura emateko eskumena daukan organoak.

3. Prozeduraren izapideetan beti bermatuko da pertsona interesdunaren entzunaldirako eskubidea.

4. Itzulketa prozedura bat ebazteko eta ebazpena jakinarazteko hamabi hilabeteko epealdia egongo da prozedura abiarazten duen ebazpena ematen denetik aurrera. Epealdi hori administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudiak ezartzen duenarekin bat etorritik eten eta luzatu ahal izango da.

Prozedura ebazteko epealdian ez bada jakinarazten berariazko ebazpenik, prozedura iraungiko da. Nolanahi ere, hori gorabehera jarduketek aurrera egingo dute prozedura burutu arte eta preskripzio-aldia ez da etentzat joko epealdi horren barruan egiten diren jarduketaren ondorioz.

5. Itzulketa prozeduraren ebazpenak administrazio bidea agortuko du.

42. artikulua. Jarduketaren koordinazioa

Organo kudeatzaileak dirulaguntza bat jaso duen pertsonak funtsak nola aplikatu dituen argitzeko ebazpena emateak ez du eragotziko Foru Administrazioaren finantza kontroleko organoek beren jarduketak egitea.

III. KAPITULUA

Enpresa-deslokalizazioak gertatuz gero foru-sektore publikoaren laguntzak itzultzeari buruz

43. artikulua. Enpresa-deslokalizazioa

1. Foru-arau honen ondorioetarako enpresa-deslokalizaziotzat jotzen da bi inguruabar hauek gertatzea:

Enpresak Arabako Lurralde Historikoan garatzen duen jarduera etetea edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean edo arestian aipaturiko egoeretako bat gertatu eta aurreko edo osteko hiru urteen barruan, Arabako Lurralde Historikotik kanpoko leku batean enpresak Lurralde Historikoan garatzen zuen jarduera berbera garatzea, jarduera bertan behera utzi duen entitatearen bidez edo berarekin Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako harremanen bat duen edo Sozietateen gaineko Zergaren 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera berari lotua den beste entitate baten bidez.

2. Jarduera bertan behera utzitzat emango da bai entitatea disolbatzen bada bai, disolbatu ez arren, entitateak Arabako Lurralde Historikoan dituen ekoizpen-instalazioak osorik edo partzialki ixten badira.

3. Jarduera nabarmen murriztutzat emango da entitateak Arabako Lurralde Historikoan dituen langileen ehuneko hogeita hamabost baino gehiago murrizten badu, murrizketa gertatu aurretik zituen langile-kopuruaren aldean.

Horretarako, kontuan hartuko da entitateak aurreko 1. atalean jasotako inguruabarrak gertatu aurretiko bi urteetako epean duen batez besteko plantilla, betiere lantokia Arabako Lurralde Historikoan duenak.

4. Enpresak Arabako Lurralde Historikoan garatzen zuen jarduera lurralde historikotik kanpo garatutzat emango da bai leku horretan jarduera hasten bada bai enpresa-jardueraren maila handitzen bada eta handitze hori proportzionala bada Arabako Lurralde Historikoan bertan behera utzi edo nabarmen murriztu denarekin.

5. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, enpresa-deslokalizaziorik ez dela ebatziko da. Horretarako, artikuluko honen 1. atalean jasotako inguruabarrekin batera, entitateak zuzenean -edo berarekin Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako harremanen bidez edo Sozietateen gaineko Zergaren 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera berari lotua den beste entitate batek- enpresa-jarduerak hasi beharko ditu Arabako Lurralde Historikoan, desagerrarazi diren lanpostu-kopuru antzekoa sortuz; edo, bestela, ezinbesteko kasu bat gertatu beharko da.

44. artikulua. Enpresa-deslokalizazioa deklaratzeko

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Arabako Foru Aldundiaren erabaki bidez egingo da, Foru Sailak edo laguntza ematen duen entitateak proposatuta, eta hasiera eman ahal izango zaio Foru Arau honen 43. artikuluan jasotako inguruabarrak gertatu eta hurrengo lau urteetako epean.

Enpresa baten enpresa-deslokalizazioaren deklarazioan tartean badira foru sail edo foru sektore publikoko entitate bat baino gehiago, deklarazio-prozedura bakarra garatuko da, erregelamendu bidez zehazten denaren arabera.

2. Prozedurari hasiera emango zaio sailaren edo laguntza ematen duen entitatearen organo eskudunaren derrigorrezko txostenaren bidez; txosten horrek justifikatu du Foru Arau honen 43. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direla eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Hamabost egun balioduneko epea emango zaio interesdunari alegazioak egiteko, bere eskubidearen arabera egokitzat jotzen dituen guztiak egin ditzan.

3. Aurreko epea bukatuta, proposamena bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari entitatearen enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa egin dezan.

4. Prozedura bukatuko da enpresa-deslokalizazioa deklaratzeko Arabako Foru Aldundiaren erabakiaren bidez, Horren berri emango zaio interesdunari.

Erabakian berariaz zehaztuko da enpresa-deslokalizazioa gertatu delako data, eta kontuan hartu beharko da hurrengo artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

45. artikulua. Jasotako laguntzaren itzulketa

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioaren ondorioz, enpresak itzuli beharko ditu aurreko zortzi urteetan jasotako diru-kopuruak, bai eta laguntza bakoitza jaso denetik deklarazioaren data bitartean sortutako berandutze-interesa.

Halaber, deklarazio horrek ekarriko du deslokalizazioa deklaratu zaien enpresek eta beren bazkideek ezin izango dutela Foru Sektore Publikoak emandako laguntzarik, deklarazioa egiten denetik eta zortzi urteko epean.

2. Dirulaguntzak itzultzen diren kasuetarako aplikagarria izango da Foru Arau honen II.Tituluan xedatutakoa. Gainerako laguntza kasuetan aplikatuko da dagokion harreman edo negozio juridikoaren arautegi erregulatuaren arabera jokatu da.

3. Dirulaguntzak ez diren eta Foru Sektore Publikoak ematen dituen laguntzei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak erabakiko du laguntzaren zenbatekoa kuantifikatzeko prozedura; izaera orokorrek, merkatu-balioaren eta dagokion negozio juridikoaren hitzarmenaren arteko aldea izango da.

46. artikulua. Salbuespenak

Salbuetsita geratzen dira Foru Sektore Publikoaren laguntzak enpresa-deslokalizazioaren ondorioz itzuli beharretik enpresetan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak eta langileen prestakuntzarako dirulaguntzak, arau bidez ezartzen den modura.

III. TITULUA**Dirulaguntzen finantza kontrola****47. artikulua. Dirulaguntzen finantza kontrola: xedea eta eskumena**

1. Foru Administrazioak eta harekin lotutako edo berari atxikitako erakunde eta entitateek Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren edo Europar Batasunaren funtsen kargura ematen dituzten dirulaguntzetako bat jasotzen duten pertsona onuradunei eta, behar denean, entitate laguntzaileei finantza kontrola aplikatuko zaie.

2. Dirulaguntzen finantza kontrolaren xedea inguruabar hauek egiaztatzea da:

- a) Pertsona onuradunak dirulaguntza ondo eta zuzen lortu ote duen dirulaguntza.
- b) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak dirulaguntzaren kudeaketan eta aplikazioan bete beharrekoak bete dituzten.
- c) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak dirulaguntza ondo eta zuzen justifikatu duenez.
- d) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak aurkeztutako frogagiriaren arabera dirulaguntzarekin finantzatutako eragiketak benetan eta etengabe egin diren.
- e) Diruz lagundutako jarduerak ondo eta zuzen finantzatu direnez, foru arau honetako 18. artikuluko 3. idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritik.

f) Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak diruz lagundutako jardueren finantzaketan, dirulaguntza ondo eta zuzen lortu, erabili edo justifikatu den ebatzian eta dirulaguntzarekin finantzatutako eragiketak etengabe eta benetan egin diren egiaztatzean eragina eduki lezakeen gertaera, inguruabar edo egoeraren bat administrazioari jakinarazi gabe utzi duenez.

3. Dirulaguntzen finantza kontrolerako eskumena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak dauka. Horrek ez ditu eragozten Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskumenak, ez eta foru arau honetako 6. artikuluan xedatzen dena ere.

4. Dirulaguntzen finantza kontrolerako ondoko hauek egin daitezke:

- a) Pertsona onuradunen eta entitate laguntzaileen kontabilitate erregistroak, finantza kontuak edo orriak eta horien euskarri diren agiriak aztertu.

b) Emandako dirulaguntzekin lotutako edo horietan eragina eduki lezaketen banakako eragiketaz zehatzak aztertu.

c) Emandako dirulaguntzekin lotuta dauden edo horietan eragina izan dezaketen egintzen zenbait alderdi partzial eta zehatz egiaztatu.

d) Finantzatutako inbertsioak zuzenean egiaztatu.

e) Dirulaguntzaren araudian eta, behar denean, hura eman duen ebazpenean ezartzen denaren arabera egin beharreko kontrolako jarduketaz zehatzak.

f) Diruz lagundutako jardueren ezaugarri berezien arabera beharrezkoak diren gainerako egiaztapen guztiak.

5. Finantza kontrola pertsona onuradunekin lotura duten pertsona fisikoei eta juridikoei ere aplikatu dakieke, eta helburuak lortzeko, jarduerak egiteko, proiektuak gauzatzeko edo jarrerak hartzeko interesa izan lezaketen pertsona guztiei ere bai.

48. artikulua. Lagundu beharra

1. Pertsona onuradunak, entitate laguntzaileak eta dirulaguntzaren xedearekin edo haren justifikazioarekin lotutako hirugarren pertsonak Foru Administrazioako organoek eta, Europar Batasunaren araudiaren arabera, finantza kontrolako egitekoak esleituta dituzten organoek eskatzen duten laguntza eman beharko dute, bai eta eskatzen dizkieten agiri guztiak aurkeztu ere. Horretarako ahalmen hauek edukiko dituzte:

a) Egiaztatu nahi den dokumentazioa (euskarri informatikoan dauden programak eta artxiboak barne) nahi duten bezala aztertu ahal izango dute.

b) Askatasun osoarekin sartu ahal izango dira diruz lagundutako jarduera egiten den negozio lokaletan eta gainerako establezimendu eta tokietan; bestela, dirulaguntzaren bidez finantzatutako eragiketaz benetan eta etengabe egin direnez egiaztatu ahal izango dute.

c) Dirulaguntza oker lortu, gozatu edo erabili delako susmoa pizten duten eragiketen fakturen, agiri baliokide edo ordezkoren eta haien inguruko beste edozein agiriren kopia eskuratu edo atxiki ahal izango dituzte.

d) Nahi duten guztietan aztertu ahal izango dute dirulaguntza kobratzeko edota funtsak erabiltzeko baliatu diren finantza entitateetako banku kontuen informazioa.

2. Betebehar hau bete nahi ez izatea foru arau honetako 35. artikuluan aipatzen diren jarduketei trabak, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo jarduketok ez onartzea bezalakoa izango da, eta horrek bertan azaltzen diren ondorioak sortuko ditu, kasu bakoitzean bidezkoak direnez gainera.

49. artikulua. Kontrolatzaileen ahalmenak

1. Kontrolako organoetako funtzionarioek agintaritzaren agente modura jardungo dute dirulaguntzen finantza kontrolean ari direnean.

Europar Batasunaren araudiaren arabera finantza kontrolako egitekoak esleituta dituzten organoetako funtzionarioak ere agintaritzaren agentetzat hartuko dira.

2. Agintaritzek (izaera gorabehera) eta bulego publikoetako, erakunde autonomoetako eta zuzenbide publikoko gainerako erakundeetako buruek edo zuzendariak, eta, oro har, egiteko publikoak dituztenek eta erakunde horietan lan egiten dutenek behar den laguntza guztia eman behar diete dirulaguntzen finantza kontrolaren ardura duten langile funtzionarioei.

3. Epaitegiek eta auzitegiek beren epai jarduketan ondorioz dirulaguntzen aplikazioan eragina eduki dezakeen datuen berri jakinez gero, Administrazioari eman behar dizkiote, ofizioz edo berak eskaturik, eta sumarioko eginbideen sekretua errespetatu behar dute.

4. Judizioetan Foru Aldundiaren aholkularitza, ordezkaritza eta defentsa esleituta dituzten zerbitzuek behar duten laguntza juridikoa eman behar diete dirulaguntzen finantza kontroleko egitekoetan aritzeagatik organo jurisdikzionalen zitazioa jasotzen duten langile funtzionarioei.

50. artikulua. Kontrolatzaileen betebeharrak

1. Dirulaguntzen finantza kontrolean aritzen diren langileek isilpean eta sekretupean gorde behar dituzte lanean ari direla ezagutzen dituzten kontuak.

Kontrol lan horietan eskuratzen dituzten datuak, txostenak eta aurrekariak xede hauetarako baino ezin dituzte erabili: dirulaguntzen finantza kontrolerako, dirulaguntzak itzultzeko eskaerak oinarritzeko, eta organo eskudunei jakinarazteko administrazio urratze izan daitezkeen edo kontabilitate erantzukizuna edo erantzukizun penala ekar lezaketen gertaerak.

2. Finantza kontrolean ari den langile funtzionario batek antzematen badu espediente batean agertzen den gertaeraren bat administrazio urratzea dela, edo kontabilitate erantzukizuna edo erantzukizun penala ekar lezakeela, kontroleko organoari jakinarazi behar dio, hark gero egindako jarduketak organo eskudunari bidal diezazkion, bidezkoa bada, ondoren bidezko prozedurak hasteko.

51. artikulua. Finantza kontrolaren prozedura

1. Dirulaguntzen finantza kontrola Foru Aldundiak onartutako urteko auditoria planaren arabera egingo da. Beste jarduketa batzuetara ere zabaldu ahal izango da, premia eta beharrezana direla eta.

2. Pertsona onuradunen eta, behar denean, entitate laguntzaileen gaineko finantza kontrolerako jarduketak haiei jakinarazpena bidaliz hasiko dira. Jakinarazpen horretan, edo hurrengo batean, informazio hau eman behar da: zer jarduketa egingo diren eta jarduketok nolako irismena edukiko duten; noiz bertaratuko den kontrol taldea; zer agiri ipini beharko diren kontrolatzaileen esku; beharrezkotzat jotzen diren gainerako datu guztiak. Horrez gainera, jakinarazpenean finantza kontrolerako jarduketaren araudiaren berri ere emango da. Halaber, jarduketa horiek dirulaguntzen organo kudeatzaileei ere jakinaraziko zaizkie.

3. Finantza kontrolean antzematen bada jasotako dirua itzuli behar izatea ekar lezakeen zerbait gertatu dela, arrazoia foru arau honetako 35. artikuluan aipatzen direnak ez beste bat izanik, horren berri emango zaio dirulaguntza eman duen organoari. Gero hark ezarritako neurriak azaldu beharko ditu, eta gerta liteke finantza kontrolaren prozedura etetea erabakitzea.

Prozeduraren etendura jakinarazi beharko zaio pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari.

4. Kasu hauetan etendura amaituko da (eta nahitaez jakinarazi beharko zaio pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari):

a) Dirulaguntza eman duen organoak bere ustez egokiak diren neurriak ezarritakoan, neurriok kontrolerako organoari jakinaraziz gero.

b) Prozeduraren etendura agintzen duen ebazpenaren ondoko hiru hiletan organo kudeatzaileak ezarritako neurrien berri eman ezean.

5. Baldin eta finantza kontrolerako egitekoetan antzematen bada jasotako dirulaguntza oker lortu, erabili edo justifikatu dela, kontrolerako organoak egokituz jotzen dituen kautelazko neurriak ezarri ahal izango ditu jokabide okerraren zantzuak agertzen diren eragiketen fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta haien inguruko beste agiri guztiak desagertu, ezabatu eta aldatu ez daitezzen.

Neurriak lortu nahi den xedearen proportziozkoak izan behar dira. Inolaz ere ez da aplikatuko kalte konponezina edo konpongaitza ekar dezakeen neurrik.

6. Pertsona onuradunen eta, behar denean, entitate laguntzaileen gaineko finantza kontrolleko jarduketak amaitzeko txostenak egingo dira; txostenetan zer gertatu den azalduko da eta ondorioen berri emango da.

Baldin eta, aurreko 3. idatz zatian xedatzen dena aplikatuz, dirulaguntza eman duen organoak jakinarazten badu emate egintzaren baliozkotasunari eragin liezaioketen jarduketak hasiko direla, dirulaguntzen finantza kontrolaren prozedura amaitzeko Foru Aldundiko organo eskudunaren ebazpena beharko da, hain zuzen ere kontrolleko jarduketekin jarraitzea bidegabea dela adierazten duen ebazpena. Nolanahi ere, dirulaguntza emateko egintza (osorik edo zati bat) baliozkoa dela adierazten duen ebazpena ematen denean, jarduketak berriz hasi ahal izango dira.

7. Pertsona onuradunen eta, behar denean, entitate laguntzaileen gaineko finantza kontrolleko jarduketak haiei jarduketan hasieraren berri ematen dien jakinarazpenaren datatik hamabi hilabete pasatu baino lehen amaitu behar dira. Epealdi hori ondoko kasuetan luzatu ahal izango da, arauz ezartzen diren irismenarekin eta baldintzekin:

a) Jarduketak oso konplexuak direnean.

b) Jarduketan ondorioz jakiten denean pertsona onuradun edo entitate laguntzaile batek kontrolerako ezinbestekoa den informazioa edo dokumentazioa ezkutatu duela.

8. Aurreko idatz zatian ezartzen den epealdia dela eta, ez dira zenbatuko pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari egotzi beharreko luzapenak, ez eta arauz ezartzen diren bidezko etenaldiak ere.

9. Dirulaguntzen finantza kontrolleko jarduketak behar bezala bultzatzeko, kontrolleko organoek eskatu ahal izango dute onuraduna, entitate laguntzailea edo lagundu beharra duen beste norbait bertaratzeko, bere egoitzan zein berariaz ezartzen den bulego publiko batean.

52. artikulua. Finantza kontrolleko jarduketan dokumentazioa

1. Finantza kontrolleko jarduketak bi modutan dokumentatuko dira: eginbideetan (jarduketan agertzen diren gertaera garrantzitsuak) eta txostenetan (arauz ezarriko da edukia eta egitura nolakoak izan behar diren eta zer baldintza bete behar dituzten).

2. Txostenak kontrola aplikatzen zaien pertsona onuradunei edo entitate laguntzaileei bidaliko zaizkie. Dirulaguntza eman duen organoari txostenaren kopia bidaliko zaio; behar izanez gero, adieraziko zaio dirulaguntza itzultzeko espedientea eta zehapena ezartzeko espedientea hasi behar direla.

3. Eginbideak eta txostenak agiri publikoak dira; gainera, beren formalizazioa eragiten duten gertaerak frogatzen dituzte, besterik egiaztatu ezean.

53. artikulua. Finantza kontrolleko txostenen ondorioak

1. Kontrolleko organoak emandako txostenen azaltzen bada dirulaguntza osoa edo horren zati bat itzuli behar dela, organo eskudunak / dirulaguntza eman duen organoak dirulaguntza itzultzeko espedientea hastea erabaki behar du, txostena oinarritzat hartuta, hilabete pasatu baino lehen, eta pertsona onuradunari edo entitate laguntzaileari jakinaraziko dio. Pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak hamabost eguneko epealdia edukiko du nahi duen guztia alegatzeko bere burua defendatzeko.

2. Dirulaguntza eman duen organoa ez badago ados hura itzultzeko espedientea hastearekin edo txostenen azaltzen den zerbaitekin, horren berri emango dio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari, arrazoiak azalduta, ebazpena eman dezan.

Desadostasunak bere horretan jarraitzen badu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak Diputatuen Kontseilura eramango du, behin betiko ebazpena eman dezan.

3. Dirulaguntza itzultzeko espedientea hasiz gero, aurkeztutako alegazioak aztertuko dira (egonez gero; bestela, horretarako ezarritako epealdia amaitu arte itxarongo da) eta gero organo eskudunak / dirulaguntza eman duen organoak kontroleko organoari bidali beharko dizkio, bere iritziarekin batera, hilabete pasatu baino lehen txostena egin dezan.

Dirulaguntza itzultzeko prozeduraren ebazpena kontroleko organoaren txostenean azaltzen den irizpideari lotu behar zaio.

Organo kudeatzaileak ez badu onartzen irizpide hori, ebazpen proposamena egin aurretik desadostasuna planteatuko du, eta aurrekontuen araudian ezartzen den bezala ebatziko da.

4. Ebazpena eman ondoren, kontroleko organoari helaraziko zaio, jakinarazpena egitearekin batera.

5. Dirulaguntza itzultzeko prozeduraren ebazpena ematen bada 3. idatz zatian aipatzen den izapidea egin gabe, ebazpena deuseztagarria izango da, eta hori Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak baliozkotu ahal izango du erabaki baten bidez.

IV. TITULUA

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapen administratiboak

I. KAPITULUA

Arau hauste administratiboak

54. artikulua. Arau haustea zer den

Oinarrizko legerian xedatzen dena gorabehera, dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboak dira foru arau honetan finkatzen diren ekintzak edo gabeziak, eta zehatzeko modukoak izango dira axolagabekeria simple gisa.

55. artikulua. Erantzuleak

Dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboen erantzuleak izango dira jardunez edo ez jarduteagatik foru arau honetan aipatzen diren arau hausteetako bat egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, eta foru arau honetako 10. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak, eta ondoko hauek batik bat:

a) Dirulaguntzen onuradunak eta foru arau honetako 10. artikuluko 2. idatz zatian eta 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren pertsona eta entitateetako kideak, hartutako konpromisoen arabera dirulaguntzaz baliatuta egin beharreko jarduerak direla eta.

b) Entitate laguntzaileak.

c) Jarduteko gaitasunik ez duten dirulaguntza onuradunen legezko ordezkariak.

d) Dirulaguntzaren xedearekin edo haren justifikazioarekin lotuta dauden pertsonak eta entitateak, foru arau honetako 42. artikuluan ezartzen denaren arabera lagundu behar dutenak eta eskatutako agiriak aurkeztu behar dituztenak.

56. artikulua. Erantzukizunaren salbuespenak

Foru arau honetan finkatzen diren ekintzek edo gabeziek ez dute ekarriko erantzukizunik dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboarengatik ondoko kasu hauetan:

a) Jarduteko gaitasunik ez duen pertsona batek eginez gero.

b) Ezinbestean gertatzen denean.

c) Arau haustea talde baten erabakiaren ondorioa denean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu den bileran izan ez direnentzat.

57. artikulua. Antolamendu juridikzional eta penaleko jarduketak

1. Gertatutakoa delitua izan ahal bada, Administrazioak erruduntasun testigantza pasatuko dio juridikzio eskudunari eta uko egingo dio zehapen prozeduraren jarraipena egiteari epaileak epai irmoa eman arte, jarduketak artxibatu edo largetsi arte edo Fiskaltzak espedientea itzuli arte.

2. Agintaritza judizialak zigorra ezartzeak zehapen administratiboa ezartzea eragotziko du.

3. Deliturik egon ezean, Administrazioak zehapen espedientea hasiko du edo hasitakoarekin jarraituko du, auzitegiek frogatutzat jotako egitateak oinarritzat harturik.

58. artikulua. Arau hauste arinak

Arau hauste arina da foru arau honetan eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezartzen diren betebeharrak bat ez betetzea, baldin eta arau hauste larria edo oso larria ez bada eta zehapena mailakatzeko elementua ez bada. Hain zuzen ere, jokabide hauek arau hauste arinak dira:

a) Jasotako funtsak nola erabili diren azaltzen duten kontuak epealdiz kanpo aurkeztea.

b) Justifikaziorako aurkeztutako kontuak erabat zehatzak ez izatea edo haietan zerbait faltan izatea.

c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan berariaz adierazi ez arren, dirulaguntza ematearen ondorioz onartutako betebeharrak formalak urratzea, arau ezartzen den bezala.

d) Kontabilitate edo erregistroko betebeharrak urratzea; ondoko hauek batez ere:

1. Kontabilitatean eta erregistroetan legez agertu beharreko eragiketaren bat ez agertzea edo oker agertzea.

2. Kontabilitatea, legez ezarritako erregistroak, euskarri gisa balio duten programa informatikoak eta agiritegiak eta erabilitako kodifikazio sistemak eduki edo mantendu beharra urratzea.

3. Entitatearen benetako egoera zein den jakitea eragozteko jarduerak eta ekitaldi ekonomiko berari buruzko hainbat kontabilitateren bidez.

4. Kontuak beren helburuetarako ez beste zerbaiterako erabiltzea eta horrela dirulaguntza jasotako jardueren egiaztapena eragozteko.

e) Ordainagiriak eta antzeko agiriak gorde beharra ez betetzea.

f) Entitate laguntzaileek foru arau honetako 14. artikuluan ezarritako arren artikulu honetako gainerako idatz zatietan berariaz aipatzen ez diren betebeharrak ez betetzea.

g) Finantza kontroleko jarduketari aitzakiak edo oztopoak jartzea, edo saihestea eta eragozteko.

Inguruabar horiek gertatzen direla pentsatuko da baldin eta dirulaguntzen arloko arau hauste administratibo baten erantzuleak, arau haustearen jakinarazpena jaso ondoren, Arabako Foru Aldundiko kontroleko organoko langile funtzionarioek finantza kontroleko egitekoetan ari direla egiten dituzten jarduketak luzatzeko, oztopatzeko edo galarazteko zerbait egiten badu.

Besteak beste, ondoko jokabide hauek izango dira kontrol jarduketari aitzakiak edo oztopoak jartzea, edo saihestea eta eragozteko:

1. Ondoko hauek ez aurkeztea edo aztertzen ez uztea: agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, frogagiriak, kontabilitate idazpenak, fitxategi eta programa informatikoak, sistema eragileak eta kontroleko sistemak, eta egiaztatutako beste edozein datu.

2. Errekerimendu bati kasurik ez egitea.

3. Ezarritako tokira garaiz ez bertaratzea, horretarako arrazoiren bat egon ezean (frogatu egin behar da).

4. Onuradunak edo entitate laguntzaileak jasotako funtsak behar bezala erabili direla edo dirulaguntza jaso duen jarduerak egin dela eta erregularra dela frogatzen duten aztarnak dauden negozio lokaletan eta gainerako establezimenduetan eta tokietan sartzea edo egotea bidegabe eragozteko.

5. Finantza kontrolean ari diren langileak bortxaz hartzea.

h) Foru arau honetako 42. artikuluan aipatzen diren pertsonak eta entitateek lagundu beharra ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada erkatu onuradunak edo entitate laguntzaileak emandako informazioa.

i) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste arintzat jotzen diren gainerako jokabide guztiak.

59. artikulua. Arau hauste larriak

Arau hauste larriak dira:

a) Dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari xede bererako beste dirulaguntza edo laguntza bat eskuratu dela jakinarazi beharra, foru arau honetako 13. artikuluko 1. idatz zatiko d) paragrafoan ezartzen dena, ez betetzea.

b) Ezarritako baldintzak ez betetzea eta ondorioz dirulaguntza emateko kontuan hartutako xedeak modu nabarmenean aldatzea.

c) Jasotako dirua nola erabilera den ezin frogatu izatea, frogagiriak aurkezteko ezarritako epealdia pasatu ondoren.

d) Entitate laguntzailea izateko dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan eskatzen diren betekizunak faltsutzea edo entitate laguntzailea izatea eragotziko zuten datuak ezkutatzea.

e) Entitate laguntzaileak dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak edo betekizunak betetzen dituela frogatu beharra ez betetzea, horren ondorioz dirua itzuli beharra sortzen bada.

f) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste larri gisa tipifikatutako gainerako jokabide guztiak.

60. artikulua. Arau hauste oso larriak

Arau hauste oso larriak dira:

a) Dirulaguntza bat jasotzea ezarritako baldintzak faltsututa edo jasotzea eragotziko zuten datuak ezkutatuta.

b) Jasotako kopuruak (denak edo batzuk) dirulaguntza eman den xedeetarako ez erabiltzea.

c) Foru arau honetako 13. artikuluko 1. idatz zatiko c) paragrafoan eta 14. artikuluko 1. idatz zatiko d) paragrafoan ezarritako kontrol jarduketei aitzakiak edo oztopoak jartzea, edo saihestea eta eragozteak, horrek eragozten badu ondoko hauek egiaztatzea: nola erabili diren jasotako funtsak; dirulaguntzaren helburua bete denez; jarduketak benetan eta etengabe egin direnez; xede bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik jaso den.

d) Entitate laguntzaileak, berariaz ezarritako gero, jasotako funtsak ez ematea pertsona onuradunari, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezartzen diren irizpideekin bat etorritik.

e) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste oso larritzat jotzen diren gainerako jokabide guztiak.

II. KAPITULUA

Zehapenak

61. artikulua. Zehapen motak

1. Dirulaguntzen arloko arau hausteei diru zehapena ezarriko zaie, eta behar den kasuetan diruzkoa ez den zehapena ere bai.

2. Diru zehapena isun finkoa edo proportzionala izan daiteke. Diru zehapen proportzionala bidegabe lortu edo aplikatutako edo justifikatu gabeko kopuruaren arabera aplikatuko da.

Isun finkoa hirurogeita hamabost eta sei mila euro artekoa izan daiteke. Isun proportzionala bidegabe lortu edo aplikatutako edo justifikatu gabeko kopurua eta halako hiru artekoa izan daiteke; entitate laguntzaileen kasuan bidegabe aplikatutako edo justifikatu gabeko funtsa edo halako hiru artekoa izan daiteke.

Diru isunak ez du loturarik edukiko dirua itzuli beharrarekin (foru arau honetako 38. artikulua), eta kobratzeko araudi aplikagarrian zuzenbide publikoko sarreretarako ezarritako araubide juridikoa aplikatu beharko da.

3. Arau hauste larri eta oso larriei diruzkoak ez diren zehapen hauek ezarri ahal zaizkie:

a) Bost urtean, gehienez, administrazio publikoen eta beste erakunde publikoen dirulaguntzarik, laguntza publikorik eta abalik ezin lortu izatea.

b) Bost urtean, gehienez, foru arau honetan arautzen diren dirulaguntzen inguruan entitate laguntzaile moduan ezin jardun izatea.

c) Bost urtean, gehienez, administrazio publikoekin kontratuak sinatzea debekatuta edukitzea.

62. artikulua. Zehapenen mailaketa

1. Kapitulu honetan zehazten diren arau hausteengatik ezartzen diren zehapenak ondoko inguruabarren arabera mailakatuko dira:

a) Dirulaguntzen arloko arauak behin eta berriro haustea.

Administrazio bidean irmoa den ebazpen baten bidez zehapena ezarri zaion arau hauste bat egin duenak dirulaguntzen arloko arauak behin eta berriro hausten ditu hurrengo lau urteetan arlo bereko beste arau hauste bat egiten badu, larria edo oso larria.

Arau hauste larria edo oso larria egiten denean aurreko jokabideetako bat gertatzen bada, zehapenaren gutxieneko ehunekoari hamar eta hirurogeita hamabost puntu artean gehituko zaizkio.

b) Foru arau honetako 13. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran eta 14. artikuluko d) letran aipatzen diren kontrol jarduketei aitzakiak edo oztupoak jartzea, edo saihestea eta eragozteak. Arau hauste larria edo oso larria egiten denean aurreko jokabideetako bat gertatzen bada, zehapenaren gutxieneko ehunekoari hamar eta hirurogeita hamabost puntu artean gehituko zaizkio.

c) Iruzurrezko baliabideak erabiltzea dirulaguntzen alorrean arau hauste larriak egiteko.

Hori dela eta, iruzurrezko baliabideak dira:

1. Kontabilitatean eta legez ezarritako erregistroetan anomalia nabarmenak gertatzea.

2. Faktura, frogagiri edo bestelako agiri faltsuak edo faltsutuak erabiltzea.

3. Pertsonak edo entitateak tartekatzea dirulaguntza jaso duen jardueraren egiaztapena eragozteko.

Arau hauste larria edo oso larria egiten denean aurreko jokabideetako bat gertatzen bada, zehapenaren gutxieneko ehunekoari hogeita eta ehun puntu artean gehituko zaizkio.

d) Administrazioari jasotako dirulaguntzaren aplikazioa egiaztatzeko behar dituen datuak ezkatzea, hain zuzen ere frogagiriak ez aurkeztea edo dokumentazioa osatu gabe edo okerreko datuekin aurkeztea. Arau hauste larria edo oso larria egiten denean aurreko jokabideetako bat gertatzen bada, zehapenaren ehunekoari hamar eta berrogeita hamar puntu artean gehituko zaizkio.

e) Betebehar formalak berandu betetzea.

2. Zehapena mailakatzeko irizpideak aldi berean aplikatu daitezke. e) paragrafoan ezarritako irizpidea arau hauste arinen zehapenak mailakatzeko bakarrik erabiliko da.

3. Aurreko idatz zatietan ezartzen diren mailakatzeko irizpideak ezin dira erabili arau hauste bat larriagotzeko, jokabide arau hauslearen deskribapenean jasota badaude edo administrazio debeku beraren barruan badaude.

4. Dirulaguntza baten inguruan arau hausle bati ezartzen zaizkion zehapen arinen guztirako zenbatekoa ezin da izan emandako diru kopurua baino gehiago.

5. Dirulaguntza bakoitzarengatik arau hausle bati jarritako zehapen larrien edo oso larrien zenbatekoa ezin da izan, guztira, bidegabe eskuratutako edo aplikatutako kopurua edo justifikatu gabeko kopurua halako hiru baino gehiago. Gauza bera aplikatuko da entitate laguntzaileek bidegabe aplikatu edo justifikatu gabe utziko funtsei dagokienez.

63. artikulua. Arau hauste arinen zehapenak

1. Arau hauste arinagatik hirurogeita hamabost eta bederatziehun euro bitarteko isuna ezarriko da, hurrengo idatz zatian xedatutako kasuetan izan ezik.

2. Arau hauste hauetako bakoitzagatik ehun eta berrogeita hamar eta sei mila euro bitarteko isuna ezarriko da:

a) Kontabilitatean eta erregistroetan legez agertu beharreko eragiketaren bat ez agertzea edo oker agertzea.

b) Kontabilitatea edo legez ezarritako erregistroa arteztu beharra ez betetzea.

c) Entitateren benetako egoera zein den jakitea eragozteko jarduera berari buruzko hainbat kontabilitateren bidez.

d) Kontuak beren helburuetarako ez beste zerbaitetarako erabiltzea eta horrela dirulaguntza jasotako jardueren egiaztatpena eragozteko.

e) Kontrol organoek eskatutako frogak eta agiriak ez aurkeztea edo ukatzea.

f) Entitate laguntzaile batek 14. artikuluan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea.

g) Foru arau honetako 42. artikuluan aipatzen diren pertsonak eta entitateek lagundu beharra eta agiriak eman beharra ez betetzea, baldin eta horren ondorioz onuradunak edo entitate laguntzaileak emandako informazioa erkatu ezin bada.

64. artikulua. Arau hauste larrien zehapenak

1. Arau hauste larriengatik diru zehapen proportzionala ezarriko da. Horren zenbatekoa bidegabe lortu edo erabili den edota justifikatu ez den diru kopurua bera izango da gutxienez, eta halako bi gehienez; edo, entitate laguntzaileen kasuan, bidegabe erabili edo justifikatutako funtsen zenbatekoa gutxienez, eta halako bi gehienez.

2. Arau hauste larri baten ondoriozko kalte ekonomikoaren zenbatekoa emandako dirulaguntzaren edo entitate laguntzaileek jasotakoaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago bada, eta hogeita hamar mila euro baino gehiago, eta foru arau honetako 56. artikuluko 1. idatz zatiko b) eta c) letretan azaltzen diren inguruabarretako baten bat gertatzen bada, arau hausleei zehapen hauek ere ezarri ahal izango zaizkie:

a) Hiru urtean, gehienez, Administrazioaren eta beste erakunde publiko batzuen dirulaguntza, laguntza edo abalik ezin lortu izatea.

b) Hiru urtean, gehienez, Administrazioarekin eta beste erakunde publiko batzuekin kontratuak sinatzea debekatuta edukitzea.

c) Hiru urtean, gehienez, foru arau honetan arautzen diren dirulaguntzen inguruan entitate laguntzaile moduan ezin jardun izatea.

65. artikulua. Arau hauste oso larrien zehapenak

1. Arau hauste oso larriengatik isun proportzionala ezarriko da: bidegabe lortu edo erabili den edota justifikatu ez den diru kopurua halako bi eta halako hiru artekoa, edo, entitate laguntzaileen kasuan, bidegabe erabili edo justifikatutako funtsen zenbatekoa halako bi eta halako hiru artekoa.

Hala ere, 54. artikuluko b) eta d) letretan azaltzen diren arau hausteengatik ez da zehapenik ezarriko baldin eta arau hausleek errekerimendurik jaso gabe itzultzen badituzte diru kopuruak eta dagozkien berandutze interesak.

2. Arau hauste oso larriaren ondoriozko kalte ekonomikoaren zenbatekoa berrogeita hamar mila euro baino gehiago izan eta foru arau honetako 56. artikuluko 1. idatz zatiko b) eta c) letretan azaltzen diren inguruabarretako baten bat gertatzen denean, arau hausleei gainera zehapen hauek ezarri ahal izango zaizkie:

a) Bost urtean, gehienez, Administrazioaren eta beste erakunde publiko batzuen dirulaguntza, laguntza publiko edo abalik ezin lortu izatea.

b) Bost urtean, gehienez, Administrazioarekin eta beste erakunde publiko batzuekin kontratuak sinatzea debekatuta edukitzea.

c) Bost urtean, gehienez, foru arau honetan arautzen diren dirulaguntzen inguruan entitate laguntzaile moduan ezin jardun izatea.

66. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Arau hausteak lau urteren buruan preskribatuko dira, egiten diren egunetik aurrera zenbatuta.

2. Zehapenak lau urteren buruan preskribatuko dira, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

3. Preskripzioaldia eteteari dagokionez, administrazio prozedura erkideari buruzko oinarrizko araudian ezarritakoa beteko da.

4. Preskripzioa ofizios aplikatuko da; hala ere, horrek ez du eragozten pertsona interesdunak preskripzioaren deklarazioa eskatu ahal izatea.

67. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena duten organoak

1. Dirulaguntza ematen duten organoek izango dute eskumena zehapen prozedura hasteko eta ebazteko. Dirulaguntza eman duen erakundea Arabako Foru Aldundia ez denean, erakunde hori atxikita daukan foru saileko titularrak erabakiko eta ezarriko ditu zehapenak.

Arau haustea oso larria denean, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak izango du ebazteko eskumena.

2. Prozedura hasteko eskumena duten organoek zehapen prozeduraren instruktorea izendatuko dute, eginkizun hori administrazio organoren bati esleituta ez badago.

68. artikulua. Zehapen prozedura

1. Dirulaguntzen arloko zehapenak administrazio espedienteen bidez ezarriko dira. Espedienteen, betiere, interesdunari entzungo zaio ebazpena eman aurretik, eta administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudiari eta maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Arauan, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidearenean, xedatutakoari jarraituz egingo dira izapideak.

2. Prozedura ofizios hasiko da, organo emaileak edo entitate laguntzaileak egindako egiaztapeen ondorioz eta, halaber, foru arau honetan ezarritako finantza kontroleko jarduketaren ondorioz.

3. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaiera emango diote administrazio bideari.

69. artikulua. Arau hausteen ondoriozko erantzukizuna azkentzea

Arau hausteen ondoriozko erantzukizuna azkentzeko arrazoiak izango dira zehapena betetzea edo ordaintzea, preskripzioa eta heriotza.

70. artikulua. Erantzukizuna

1. Diru zehapenaren erantzule solidarioak izango dira 10. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren entitateetako kide, partaide edo titularkideak, nor bere partaidetzaren neurrian, ondasun erkidegoak edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare bananduak direnean.

2. Diru zehapenaren erantzule subsidiarioak izango dira merkataritza sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen lege ordezkariak dutenak, aplikatu beharreko lege edo estatutu xedapenekin bat etorriz, betiere, urrututako betebeharrak betetzeko beren ardurapeko egintza egokiak egin ez badituzte, arau haustea ahalbidetu dituzten erabakiak hartu badituzte edo beren mendekoei arau haustea egiten utzi badiete.

3. Desegin eta likidatutako sozietate edo entitateei dagokienez, legeak bazkide, partaide edo titularkideen ondare erantzukizuna mugatzen badu, ordaintzeko dauden zehapenak horiei eskualdatuko zaizkie, eta modu solidarioan egin beharko diete aurre muga honetaraino: adjudikatu zaien edo adjudikatu behar zitzaizen likidazio kuotaren balioa.

4. Desegin eta likidatutako sozietate eta entitateei dagokienez, legeak bazkide, partaide edo titularkideen ondare erantzukizuna mugatzen ez badu, ordaindu gabe dauden zehapenak horiei eskualdatuko zaizkie, eta modu solidarioan egin beharko diete aurre.

Lehen xedapen gehigarria. Dirulaguntzen finantza kontrolak egiteko laguntza kontratatzea auditore pribatuekin

1. Arabako Foru Aldundiko organo eskudunek auditoretza enpresa pribatuei laguntza eskatu ahal izango diete dirulaguntzen finantza kontrolak egiteko.

2. Administrazio ahalak erabiliz egin beharreko jarduketak, betiere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egingo ditu.

Bigarren xedapen gehigarria. Gauzako laguntzak

1. Arabako Lurralde Historikoaren ondareko ondasun edo eskubideak dohainik ematen direnean laguntza gisa, ondareari buruzko araudi aplikagarria bete beharko da.

2. Hala ere, laguntza gisa ematen diren ondasun edo eskubideak edo egiten diren zerbitzuak hirugarren pertsoneri emateko xede bakarrarekin eskuratu edo kontratatu badira, foru arau hau aplikatuko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. Administrazioak partikularrei kredituak ematea interesik gabe edo merkatukoak baino interes txikiagoarekin

Foru arau honetako 3. artikuluan aipatutako erakundeek partikularrei kredituak ematen dizkietenean interesik gabe edo merkatukoak baino interes txikiagoarekin, kreditu horien berriazko araudia beteko da, edo, horrelakorik ezean, eragiketa horien izaerarako egokiak diren foru arau honetako preskripzioak; batez ere, printzipio orokorrak, pertsona onuradunen eta entitate laguntzaileen baldintzak eta betebeharrak, eta emateko prozedura.

Laugarren xedapen gehigarria. Hezkuntza, kultura eta zientzia arloetako sariak edo bestelakoak

Hezkuntza, kultura edo zientzia arloetako sariak edo bestelakoak emateko araubide berezia ezarriko da. Araubide hori foru arau honen edukiari lotu beharko zaio, dirulaguntzen izaera bereziagatik foru arau honen edukia aplikagarria ez den alderdietan izan ezik.

Bosgarren xedapen gehigarria. Foru fundazioak

Foru sektore publikoko fundazioek dirulaguntzak eman ahal izango dituzte soil-soilik kasuan kasuko fundazioa atxikita daukan sailaren erabaki baten bidez fundazio horri berriaz baimena ematen zaionean.

Oinarri arautzaileak onartu, dirulaguntza emateko aurretiazko baimena eman, itzulketa eskatzearen eta zehapenak ezartzearen ondoriozko eginkizunak, kontrol eginkizunak eta administrazio ahalak erabiliz egin behar diren beste guztiak, Arabako Foru Aldundiko administrazio eskuduneko organoek egingo dituzte.

Xedapen iragankorra. Prozeduren araubide iragankorra

1. Foru arau honek indarra hartu aurretik hasita dauden dirulaguntza emateko prozedurei hasi zirenean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie.
2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, foru arau honetan finantza kontrolerako, itzulketarako eta egintzen berrikuspenerako ezarritako prozedurak foru arau honek indarra hartzen duenetik aurrera aplikatu behar dira.
3. Foru arau honetan ezarritako zehapen araubidea pertsona onuradunei eta entitate laguntzaileei aplikatuko zaie, xedapen honetan aurreikusitako kasuetan, baldin eta araubide juridiko hori aurreko araudian ezarritakoa baino aldekoagoa badute.

Xedapen indargabetzailea

1. Indargabeturik geratzen da otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta transferentziena, bai eta foru arau honetan xedatutakoarekin bat ez datozen edo horren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.
2. Indargabetutako testua garatzeko eman diren erregelamenduzko arauak indarrean iraungo dute, foru arau honetan ezarritakoaren aurkakoak ez badira, harik eta foru arau hau garatzeko ematen diren arauak indarrean jarri arte.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Erregelamenduzko garapena

Diputatuen Kontseiluari ahalmena ematen zaio foru arau hau betearazi eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 19a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA